

txintxarri

JOKIN BILDARRATZ SORRON
Eusko Jaurlaritzak

TTAKUNENEA

2022-12-30 OSTIRALA / 1611 ZENBAKIA
LASARTE-ORIA TXINTXARRI.EUS / TOKIKOM

2022

Hamar atzamar, hamaika albiste

Aurtengo albiste maratona amaitzen den honetan, gogotsu gaude datorren urtekorako! / 3-15

TXINTXARRI

2 Mo 99€
erreflexuen aurkako
**betaurreko
graduatuak**

Kontsultatu optikan kanpainaren ezaugarriak.



urte berri on!

Kale Nagusia, 15
Tel.: 943 37 74 55
LASARTE-ORIA

MULTIÓPTICAS
kalitatea - konfiantza - diseinua

www.multioplicas.com   

2022. urtea

Urtarrila	3
Otsaila	4
Martxoa	5
Apirila	6
Maiatza	7
Ekaina	8-9
Uztaila	10
Iraila	11
Urria	12
Azaroa	13
Abendua	14-15



Aurtengo urtekaria formatu txikian argitaratu dugu

Bukatzeaz da urtea eta, horrekin batera, ohitura dugun moduan, 2022ko hamabi hilabeteetan gertatu denaren erreposoa egin dugu eskuartean duzun aldizkari honetan. Ohartuko zinen honezkerok, baina aurtengo urtekaria formatu txikian argitaratu behar izan dugu: 32 orri beharrean, hamasei kaleratu ditugu.

Zergatik? Azalpena ez zaizu arraroa egingo. Nork ez du entzun prezioek gora egin dutela, fakturak gero eta garestiagoak direla? Hori bera gertatu zaigu guri ere: inprentakoek esan digute %10,83 igo behar izan dutela hilabetero ordaintzen dugun tarifa, papera ekoiztearen garestitzeari aurre egin ahal izateko.

Jakinarazpen hori tarteko eta kontuan izanda nekez iristen garea gure diru sarrera eta gastuak orekatzera, moldaketa pare bat egin behar izan ditugu, egun batetik bestera garestitu duguten prezioa merkatzeko: 200 ale gutxiago aterako ditugu astero (8.500 beharrean, 8.300), eta 32 orrikoa izatea aurreikusten genuen urtekaria erdira murriztu behar izan dugu: bestela esanda, berezia izatekoa zen agerkaria arrunt bihurtu.

Urtarriletik aurrera zer gertatuko den ez dakigu, ia %11 igo duguten tarifa hori are gehiago garestituko ote den, baina ziurtasun osoz esan diezazuekegu hau: beti bezala jarraituko dugu guk lanean, Lasarte-Orian gertatzen denaren berri ematen, gertutasunez eta euskaraz. Abenduko ekoizpena zertxobait jaitsi izanagatik, berdin-berdin segiko dugu albiste, elkarrizketa, erreportaje, argazki galeria eta bideoak egiten, ez izan zalantzarik.

Ez genuke hitzurretxo hau amaitu nahi eskerrak eman gabe: eskerrik asko gudan konfiantza izateagatik, eskerrik asko aldizkaria ilusioz jasoteagatik, eskerrik asko Lasarte-Orian egitasmo, jai, jarduera eta aldarrikapenak aurrera emateagatik, eskerrik asko aldizkariak hitz eta argazkiz betetzeko aukera emateagatik. Horrek guztiak ez du preziorik.

Hurrengo Txintxarri paperean
urtarrilaren 13an argitaratuko dugu

Bitartean, jarraitu herriko albisteak sarean: www.txintxarri.eus

txintxarri

www.txintxarri.eus

Argitaratzailea

Ttakun Kultur Elkarteak
Geltoki kalea 4 (behea)
20160 Lasarte-Oria
G-20407557

Administraria

Nerea Garziarena.

Erredakzioa

Nerea Eizagirre, Iñigo Gonzalez,
Maddi Zaldua eta
Maitane Aldanondo.

Publizitatea

Irati Zatarain.

Laguntzaileak

Gorka Lasa, Asier Odriozola,
Gorka Alvarez, Jexux Artetxe,
Maitane Rebe, Julen Basterra,
Lierni Rekondo eta Aizpea Amas.

Banatzaileak:

Lide Hidalgo, Uxue Odriozola,
Julene Iraola, Egoitz Epelde,
Endika Merchan, Gorka Morales,
Sergio Hernandez, Ander Hazas
eta Iñigo Garcia.

Informatika zerbitzuak

IZT Informatika.

PUBLIZITATEA

Geltoki kalea 4 (behea)
Tel.: 943-37 14 48 (106)
WhatsApp: 646 82 44 66
publizitatea@ttakun.eus

EGOITZA NAGUSIA

Ttakun Kultur Elkarteak
Geltoki kalea 4
Tel.: 943-37 14 48 (104)
WhatsApp: 688 68 35 10
txintxarri@ttakun.eus

Inprimategia

Zeroa Multimedia, S.A.

Lege Gordailua: SS-513/93

ISSN: 1134-0053

Tirada: 8.300 ale

BABESLEA



LASARTE-ORIA
UDALA

DIRUZ LAGUNDUTAKO ARGITALPENA:



Gipuzkoako Foru Aldundia

Desfilerik gabeko Errege Magoen bisita

Urte berriari ongietorria emateko lehen hitzordua Errege Magoen bisita izan zen. Koronabirusa tarteko, ez zituzten herririko kaleak zeharkatu urtarrilaren 5ean, jende pilaketak saiheste aldera ekitaldi hori bertan behera uztea erabaki baitzuen udalak. Melchor, Gaspar eta Baltasar Manuel Lekuonan izan ziren; bertan jaso zituzten haurren eskutitzak eta harrera beroa. Eskatutako oparien zerrenda postontzietan sartu, eta pajeeek goxokiak eman zizkieten.



Errege Magoei harrera. TXINTXARRI

XI. Presoen Errezitaldia egin zuten Oriako kaperan

Harresi Guztien Gaietik taldeak antolatuta, *Zubiak bizirik, beti aurrera begira* lelopean XI. Presoen Errezitaldia egin zuten. Kultur etxea utzi, eta Oriako kapera aukeratu zuten tren bidaia gisa irudikatutako saioa egiteko. Kartzela zer den eta hara joan-etorriek eragindako sentipenak partekatu zituzten musika, dantza eta irakurketen bidez. Hurrengo egunean, Sare Herritarrak deituta, manifestazioa egin zuten herriz herri salbuespen legediaren amaiera aldarrikatzeko.

Zinegotzi kargua utzi zuen Joxe Pikabea Bereziartuak

Urtarrileko udalbatzarrean Joxe Pikabea Bereziartua EH Bilduko zinegotziak dimisioa eman zuen. Udaletik kanpo "herria egiten" jarraituko duela nabarmendu zuen Asier Gorostegi alderdiko ordezkariak eta eskerrak eman zizkion zinegotzi izateko emandako pausoagatik; baita haren lekua hartu zuen Sandra Barkaiztegi Navarrori ere.

Buruntzako gurutzearen eraistea, eztabaidagai

Abendu erdialdean Buruntzaldeko Ernaik eraitsi egin zuen Buruntza mendiko gurutzea, eta hurrengo asteetan horri buruzko iritzia eman zuten zenbait eragilek. Islada Ezkutatuak taldearen ustez, "frankismoaren sinboloa" aspaldi desagertua behar zuten, baina "eskumena duen administrazioak" eginda. Lasarte-Oriako EAJ-PNV, Elkarrekin Lasarte-Oria Puede eta PSE-EEren adierazpen bateratuan, "ikur esanguratsua" izanik, gertaera beste esanahi bat eman diotenekiko "errespetu falta" zela adierazi zuten. PPK ere gaitzetsi zuen "ekintza bortitza eta demokraziaren aurkakoa".

Herriko atletak Euskadiko Txapelketako podiumean

Pista estaliko Euskadiko Proba Konbinatuen eta Master Mailako txapelketak jokatu zituzten hilabete hasieran. Naroa Furundarena pentatloian absolutu mailako lehena izan zen, Euskadiko Txapelketako sailkapen orokorrean, ordea, zilarrezko domina eskuratu zuen. Jose Ramon Latorre, berriz, Master mailako 60 eta 200 metroko lasterketetan lehiatu zen, txapeldun orde eta txapeldun izan zen, hurrenez hurren.

Beterri-Buruntza Mankomunitatearen eraketa

Andoain, Astigarraga, Hernani, Lasarte-Oria, Urnieta eta Usurbilgo udalek Beterri-Buruntza Mankomunitatea eratu zuten Hernanik egindako batzarrean. "Eskualde izaera" indartzeko eta bertako garapen sozial eta ekonomikoa bultzatzeko erakundearen lehendakaria Andoaingo alkateorde Marijose Izagirre da. Nuria Fernandez (PSE-EE) zinegotzia erakunde lehendakariordea da eta Jon Antxordoki (EAJ-PNV) lehen zuzendaritza batzordeko kide.

Saltokietan egindako lapurretak salatu zituzten

Aterpeak deituta elkarretaratzea egin zuten herriko saltokietan izandako lapurretak salatu, eta kaltetuei elkartzuna adierazteko. Asteburu berean hamar bat lapurreta egin zituzten. Gertaerak ikertzeko baliabideak eskatu zizkioten udalari eta Eusko Jaurlaritzari eta errudunak epaileen esku uzteko.



Elkarretaratzeko irudia. TXINTXARRI

Gero eta familia gehiago GurasoLeku programan

Euskara familiartein indartsuago transmititu dadin lanean ari dira



Ikastetxeetako hurrek gogotsu jo zituzten martxak. TXINTXARRI

Mugekin ospatu zuten Danborrada

Pandemiak eragindako egoerara moldatutako Danborrada egin zuten ikastetxeek. Gurasoek ezin izan zuten seme-alaben erakustaldira joan, eta zenbaitek kanpotik ahal bezala jarraitu zuten. Dena den, ikasle gazteek pozik eragin zieten makilei San Sebastian bezperan.

Lasarte-Oriako Udaleko Euskara Zerbitzua, Ttakun Kultur Elkarte, Sasoeta eta Landaberri-ikastetxeak eta bietako guraso elkarteak, Andre Joakina Enea haur-eskola, eta Munterri-AEK. 2014-2015 ikasturtetik helburu hori lortzeko baliatzen dute GurasoLeku egitasmoa. Urtez urte adin tartea handitzen joateaz gain, izen ematek ere gora egin dute: 2021-2022an, 181 familia aritu ziren.

Urtarrilean inoiz baino Covid-19 kutsatze gehiago herrian

Koronabirusaren omikron aldaeraren ezaugarrietako bat pertsonen artean oso azkar hedatzea da; eta horren eragina agerikoa izan zen Lasarte-Oriako datuetan. Izan ere, urteko lehena ordura arte intzidentzia tasa altuena izan zuen hilabetea izan

baitzen, 2.120 kutsaturekin. Are gehiago, 2020ko martxoan pandemiak eztanda egin zuenetik Covid-19ak kutsatutako 5.205 herritarretatik bi bosten urtarrilean gaixotu ziren.

Klubon Kopan hirugarren izan zen Buruntzaldea IKT

Buruntzaldea IKTko igerilariak B mailako Klubon arteko Kopa jokatu zuten Tolosako Usabal kiroldegian. Igeriketa taldeko hamabost kidek B mailako emakumezkoen eta gizonezkoen lehiatan parte hartu zuten. Emakumezkoen taldeak podiumeko hirugarren mailara igotzea lortu zuen; gizonezkoenak, berriz, laugarren postua eskuratu zuen. Bi txapelketetako emaitzak kontuan hartuta, B mailako hirugarren postua eskuratu zuen Buruntzaldea IKT.

Lara Velasco

627 74 20 56

FISIOTERAPEUTA
OSTEOPATIA
KIROL MASAJEA

SURIA
Zentroa
Jaizkibel plaza, 7
LASARTE-ORIA

A2car

Continental
The Future in Motion

urtarrilaren 31 arte

16" edo 17" Ilanta
2 gurpil 4 gurpil
20€ 50€

18" edo handiagoak
2 gurpil 4 gurpil
35€ 80€

Continental gurpil all season edo negukoak erosteagatik erregai txakea eskura dezakezu

Zumaburu 18
Lasarte-Oria
Tel: 943-36 24 63

Hamabost urte itsas hondoa irudi bidez bisitatzen

Real Sociedad taldeko itsaspeko sailak, Lasarte-Oriako Udalak eta Danok Kide elkarteak antolatuta, Itsaspeko Zinema Zikloaren XIV. edizioak beste behin itsasoaren azpian dagoena ezagutarazteko aukera eman zien lasarteoriatarrei. Hilabeteko hiru astetan egindako emanaldiekin batera, ikastetxeetako gaztetxoetat Txikizikloa ere egin zuten, "kontzientzia har dezaten"; eta aurtengo ziklora aurkeztutako argazki onenen erakusketa jarri zuten kultur etxeko kafetegian.

Euskarazko kultur jardueren berri emateko eskuorria

Lasarte-Oriako Udaleko Euskara Zerbitzuak eta Ttakun Kultur Elkarteak hurrengo hilabeteetarako antolatutako jardura sortaren berri eman eta herritarren ekarpenak jasotzeko eskuorria prestatu eta zabaldu zuten.

Santa Agedaren omenez, santa eskean

Herriko zenbait eragilek bertan behera utzi zituzten aurtengo saioak, baina, hala ere, usadioari eutsi zioten Erketz EDT dantza taldeko kideek eta santa eskean irten ziren. Halaber, herriko ikastetxeetako ikasleek ere makilak astinduta oles egin eta herriko kaleak girotu zituzten.



Ikasleak makilak astintzen. TXINTXARRI

Nahia Zudaire, jubeni mailako Espainiako txapelidun

Igeriketa Egokituko AXA Espainiako Txapelketan nagusitu zen Buruntzaldea IKTko Nahia Zudaire igerilaria. Jubeni mailan gailendu, eta sailkapen orokorren podiumeko hirugarren mailara igo zen. S8 mailako lau probatan parte hartu zuen eta lehen postuan amaitu zuen guztietan: 400 m. estilo librea, 100 m. estilo librea,

Mozorroak herriko kaleetara bueltan

Osasun neurri ia denak kenduta, gogotsu bizitu zituzten Inauteriak lasarteoriatarrek. Ikastetxeetako irakasle eta ikasleak izan ziren irudimena (eta gorputza) dantzan jartzen lehenak. Ondoren, Ttakun Kultur Elkartearen Amarauna Kluba, Gazte Kluba eta Kuadrillategiko gazteak. Larunbatean, berriz, herritarren eta konpartsen txanda izan zen, eta igandean, Euskal Inauteriana.



Txantxoak dantzan eta kantuan ibili ziren Euskal Inauterietan. TXINTXARRI

100 m. tximeleta eta 200 m. lau estilotan.

Emozioetan oinarritutako Sara Etxeberriaren artelanak

Sara Etxeberria Zapirain lasarteoriatarrek *Bideak* erakusketa ikusgai jarri zuen Agora tabernan. Hiru hilabetez hormetan zintzilik egon ziren Arte Ederretako ikaslearen koadroak. Basoko Maxuxta izen artistikopean sinatuta, teknika ezberdinekin egiten ditu lanak denbora librea.

2022ko Interneteko Argia saria 'Badok.eus' atariari

Badok musika atariak jaso zuen 2022ko Interneteko Argia saria. Euskal musikaren erakusle hori digital hori koordinatzeaz arduratzen da sorreratik Jon Eskisabel herritarra.

Aintzane Usandizagaren ipuin ilustratua, Esther Ferrerri buruz

(Ia) guztia moztu eta itsats daiteke. Esther Ferrer eta denbora libururu ilustratua aurkeztu zuten Aintzane Usandizaga idazle lasarteoriatarrek eta Aran Santamaria egileak. Parisen bizi den artista donostiarra da Ferrer, eta haren lana bistartzeko asmoz osatu zuten liburua, San Telmo Museoa ikusgai zegoen *Baginen Bagara. Emakume artistak: ikusgarritasun(ez)aren logikak* erakusketari lotuta. Emakume artisten lanak euskarri "egonkorrago" batean biltzeko asmoa du bildumak.

Dominak Pista Estaliko Euskadiko Txapelketan

Donostian jokaturako Pista Estaliko Euskadiko Txapelketan Ostadar Atletismo Saileko Naroa Furundarena eta Oihana Igarritz podiumera igo ziren, baita Real

Sociedad taldeko kide Yeray Veroniz herritarra ere. Guztira lau domina eskuratu zituzten herriko atletek baita markak ondu ere. Furundarenak bi urte lortu zituen, Igarritzek eta Veronizek, berriz, zilar bana. Egun batzuk geroago, Furundarenak zilarra lortu zuen 23 urtez azpiko Espainiako txapelketan, jauzi hirukoitzeko proban eta zazpigarren izan zen luzera jauzikoan.

Irakurle Txokoaren bertso saioa, inoiz baino literarioagoa

Iazko hutsunaren ondoren, Irakurle Txokoak zazpigarrenez egin zuen bertso saio literarioa. Otordurik gabe, gainerakoan betikoari eutsi zioten: Uxue Alberdi, Ane Labaka eta Maialen Lujanbio aritu ziren bertsoetan Miren Agur Meabe idazleak jarritako gaiekin. Lekeitiarrak horietarako inspirazio iturri izan zituen herriko historia, zenbait istorio, eta idazle lasarteoriatar batzuen lanak.



Saioan aritu ziren bertsolariak. TXINTXARRI

Mendebaldeko Sahararekiko elkartasun jarduerak

Sahararekin Elkartasuna Lasarte-Oria taldeak janari bilketa egin zuen urtarril amaieran eta elkartasun ekimenei eutsi zien

otsailean ere. Ali Salem Iselmu idazle eta kazetari sahararrak hitzaldia eman zuen, auto karabana egin zuten eta otsailaren 27an, Saharar Errepublika Arabiar Demokratikoa aldarrikatu zenetik 46 urte bete ziren egunean, elkarretaratzea.

Laura Huesok 'Otsoa' liburua aurkeztu du herrian

Senide, gertuko eta Aspanogiko lagunez inguratuta aurkeztu zuen Laura Hueso herritarrek *Otsoa* liburua. Semeari 3 urte zituela leuzemia diagnostikatu zioten eta bizitakoa azaltzeko sortu zuen kontakizuna. Manuel Lekuona Kultur Etxean egindako aurkezpenean, ondoan izan zituen Aspanogiko psikologo eta gizarte langile Marijo Gonzalez eta Nekane Lekuona, eta Amaia Agirre bertsolari eta elkarte bereko kidea.

Errugbi barneratzaile partida, lehenengoz, Michelinen

Bultza Ligako neurketa bat jokatu zuten lehenengoz Michelin kirol gunean. Hernaniko Landare zelaia erabilgarri ez zegoenez, Hernani CRE eta Universitario de Bilbao talde barneratzaileak herrikoan aritu ziren elkarren aurka. Neurketa amaitzean, Hernani CREko lehendakariak oroigarri bat eman zion Beltzak Errugbi taldeko beteranoren presidente Juanar Ciriari, eskertza moduan.

Argi Iturralderi eta Iñaki Balerdiri omenaldia

Hemeretzi urte bete ziren hilaren 28an Argi Iturralde eta Iñaki Balerdi lasarteoriatarrek auto istripuan hil zirela. Ezbeharrak Almeriako espetxean preso zegoen Juanar Balerdi senidea bisitatzeraz zihoazela gertatu zen.

Joxe Balerdi, presoaren aita, aldiz, larriki zauritu zen. Askatasuna parkeko oroitarrian elkartuta egin zieten omenaldi xumea herritarrek. Halaber, abagunea baliatu zuten disperseioak eta salbuespenezko neurriek indarrean jarraitzen dutela salatzen.

Andaluzia Eguneko ospakizunak, bezperan

Egunaren bezperan hasi zituzten Andaluzia Eguneko ospakizunak Arantzazuko Ama parrokian egindako meza rocieroarekin. Semblante Rociero koruak eta Duende taldeko neskek parte hartu zuten elizkizunean, eta ondoren, Atsobakar auzoko egoitzan bazkaria egin zuten. Bazkaria arintzeko, Katak taldeak flamenko emanaldia egin zuen. Hurrengo egunean, hilak 28, elkarteak lehendakari kargua hartu zuen Juan Navarrok eta Ohorezko topa egin zuten.



Semblante Rociero, meza. TXINTXARRI

Koronabirusaren intzidentzia tasa, gero eta txikiagoa

Otsailean 329 lagun kutsatu ziren Lasarte-Orian. Urteko lehen hilabetea pandemia hasi zenetik intzidentzia gehienekoa izan zen, baina egoera erabat aldatu zen aste gutxiko tartean.

Geltoki kaleko lanak esleituta, 237.995 eurotan

Lasarte-Oriako Udalak jakinarazi zuen lanak egingo zituela Geltoki kalean, bertako saneamendua eta irisgarritasuna hobetzeko. Asfaltados y Construcciones Morga enpresari adjudikatu zizkion, 237.995 eurotan. Egin beharreko lanak: ur hornidurarako burdinurtu modularreko kanalizazioa jarri, ibilgailuen abiadura moteltzeko zoladurak berri; kultur etxe pareko oinezkoen pasabidea aldatu; Geltoki kaleko 12 eta 14 zenbakien artean pasabide bat egin eta gune horretan espaloia zabaltzea.

Trukelandia, sendiek ezagutzak partekatzen

Familien artean euskararen transmisioa indartzea da Gurasolandia egitasmoaren helburua. Iaztik bertan dabiltzanek Trukelandian ere partzeko aukera dute. Hilabetearen behin elkartu eta ezagutzak partekatzen dituzte: errezetak, abestiak, jolasak, ipuinak... Kide berriei haren nondik norakoak azaltzeko ekitaldia egin zuten kultur etxean.

Avenida tabernaren 40. urteurrena

Lehen aldiz, 1982an zabaldu zituen ateak Avenida tabernak. Rosa Ventosok eta Juan Rodriguezek kudeatzen zuten orduan negozioa eta urte askoan bertan lanean aritu ondoren, Yon Mikel semeak hartu zuen ardura 2012an. Urtebetetzea bezero eta herritarrekin ospatzeko, 40 urte gogo betez festa egin zuten.



Avenida tabernako arduradunak. TXINTXARRI

Xake klub berri bat du herriak

Xake Klubak biltzen zituen herriko xake zaletuak Blas de Lezo 11 zenbakiko Danok Kideren lokalean. Nahiz eta klubak bere jarduna eten, bere izaera mantendu egin zen eta 2021. urte amaieran, orduko kide talde batek kluba berriro irekitzea erabaki zuen. Herriko xake zaletasunari

berriro bultzada emateko xedez, Taula Xake Kluba eratu zuten kokaleku berean.

Oztaran-Arranbide auzoa birgaitzeko plana

Hiritik At enpresak Oztaran-Arranbide auzoan egin daitezkeen esku hartzeen gidalerroak zehaztuko dituen plan zuzentzailea landuko du. Prozesuak 48.684 euroko aurrekontua du eta auzotarren laguntzat garatuko dute, hiru fasetan: diagnosa, proposamenen bilketa eta dokumentuaren aurkezpena. 1960 eta 1970 hamarkadetan garatutako auzoan "irisingarritasun falta dago, espazio publiko berriak sortu behar dira eta etxebizitzaren energia plana ere hobetu behar da" azaldu zuten alkateak aurkezpenean.

Barne galderei erantzunak bilatu, argazkien bidez

Emakumeen Nazioarteko Egunaren harira udalak antolatutako egitarauaren barruan, Idoia Telleria Maritxalar argazkilariak *Ni naiz, Idoia* erakusketa atondu zuen. Hamabi irudiz osatutako proiektu "oso intimo eta pertsonala" da, Idoia desberdinak erakusteko ariketa eta egilearen barne galdera askoren erantzunak: "Aldaketa pertsonal eta profesionalak, emakume izatea, ama izatea, nire sustraiak, nondik natorren eta nora noan...".

Elkartasun kilometroak ukrainarrei laguntzeko

Errusiak otsailaren 20an hasi zuen Ukrainaren aurkako eraso, eta egun gutxitan, gatazkak eragindako ukrainarrei laguntza emateko ekimenak loratzen hasi ziren, baita Lasarte-Orian ere. Fernando Furundarena herritarrek proiektu humanitario

batean parte hartu zuen Ukraina eta Eslovakia arteko mugan. Elikagaiak, sendagaiak, arropa, garbiketa produktu... eraman eta 26 ukrainar ekarri zituzten. Yon Pavon eta Borja Coca herritarrek, berriz, Krakovian (Polonia) izan ziren. Materiala eraman zuten hara eta bi familia ekarri zituzten Euskal Herrira. Halaber, Ludotekan materiala gerrak eragindakoentzat materiala jasotzen hasi ziren.

Herriko euskararen egoerari buruzko solasaldia

Korrika Kulturalak antolatuta, *Euskararen egoera herrian; nondik gatoz, non gaude eta nora goaz* solasaldia egin zuten Ttakunenean. Luze eta zabal hitz egin zuten gaiak sei gonbidatuek: Joxe Mari Agirretxe, Iñaki Arruti, Bea Egizabal, Maider Galardi, Uxue Loinaz eta Mari Karmen Ormazabal. Moderatzaile lanetan, berriz, Ane Labaka aritu zen.



Mahai inguruko partaideak. TXINTXARRI

Okendo Zinema Taldearen euskal dokumentalen zikloa

Iazko arrakastak hauspotuta, Okendo Zinema Taldeak euskal dokumentalen ziklo berri bat antolatu zuen. Kutsu sozialeko bost lan proiektatu zituzten: *Bolante baten historia*, *Apaiz kartzela*, *Hijos de dios*, *Tipularen*



Berdintasun teknikaria eta saila

Martxoaren 8aren harira egindako ekintzak bere eskaera berresteko baliatu zituen herriko mugimendu feministak: Berdintasun teknikari bat kontratatu eta alorreko sail bat sortzea. Herritarren atxikimenduak bildu zituzten eta oposizioko alderdiek bat egin zuten, udalbatzarrean horren aldeko mozio bat aurkeztuta.

sehaska kanta eta *Aita Mari*. Publikoari "plus bat" emate aldera, dokumentala ikusi ondoren, haien sortzaile eta protagonistetako batzuekin solasteko aukera izan zuten bertaratutakoek.

Elkar+Ekin Dantzan, elkarleen lana aitortzeko

Elkarleen Ikerketa eta Berrikuntzarako Ekosistema elkarrekin (EIBE) deituta, Elkar+Ekin jardueran parte hartu zuten Erketz EDTk, Kukuka Antzerki eta Dantza Eskolak eta Plaza Dantzak. Manifestua irakurri eta Olatz Salvadorrek eta Bihotx taldeak egindako *Martxa baten lehen notak* abestiaren moldaketa dantzatu zuten, muxiko eran. Hamaika udalerritan aurrera eramandako ekimenak xede zuen elkarrekin eta boluntarioen lana aitortzea.

Obrak Sasoeta ikastetxean eta Kale Nagusian

Lasarte-Oriako Udalak Sasoeta ikastetxerako sarbide berria eta Kale Nagusiko tarte bateko berritze lanak egingo zituela jakinarazi zuen. Lehenengoak, 245.630 euroko aurrekontua du eta bigarrenak, 291.000 eurokoa.

Emozioen lanketa, hizpide

GurasoLandia egitasmoak eta Treba Guraso proiektuak emozioei buruzko hitzaldi bana antolatu zuten. Lehenengoan, Ane Ablanedo pedagogia libreetan adituak haietan oinarritutako haurren garapen emozionala izan zuten hizpide. Bigarrenean, Donna Apellaniz hezitzaile eta terapeuta emozional sistemikoak seme-alaben emozioak zaintzeko kontzeptu teorikoak eta adibide praktikoak partekatu zituen.

INPRENTA
offset eta digitala

DISEINU GRAFIKOA

DISEINU EDITORIALA

Goza ezazue jai hauetan
Urte berri on!

antza

KOMUNIKAZIO GRAFIKOA

Zirkuitu ibilbidea, 2 20160 LASARTE-ORIA

Tel. 943-37 07 38 info@antza.eus

www.antza.eus

Juan XXIII plaza berritzeko lanak iragarri zituen udalak

Pandemiagatik atzeratu behar izan zituen lanen lizitazioak aurkeztu zituen udalak. Horien artean, herriko jolastoki ugarian aldaketak egiteko asmoa agertu zuen: esate baterako, Juan XXIII plazako parkea "erabat" berrituko zuela iragarri zuen. Obrak Montajes Garra enpresari adjudikatu zizkion, 88.914 eurotan, Agustin Valdivia alkateak ezagutarazi zuenez.

Komunikazio ez bortitzean trebatu ziren gurasoak

Harremanak zaindu eta modu eraginkorrean kudeatzen lagundu dezakeen komunikatzeko modua aurkeztu zien Nerea Mendizabal zestoarrak Lasarte-Oriako hainbat gurasori. Treba Gurasoak programaren barruan antolatu zuten hitzaldia, Oriarte Landaberrin. Familiako kideen beharrak ezagututa, etxeko giroaz gozatzeko gakoak jaso zituzten entzuleek. Seme-alabekin komunikazioa, harremanak, emozioak, gatazkak eta bestelakoak lantzeko azalpenak eman zituen Mendizabalek..

Udako txokoak aurkeztu zituen Lasarte-Oriako Udalak

Horien nondik norakoak aurkeztu zituzten Antonio Mercero gunean. Bertan izan ziren Euskara batzordeburu Jon Antxordoki eta Loiri enpresako ordezkariak.

Imagine jantzi denda, Buruntzaldeako bitxia



Dendako jabea saria eskuetan. TXINTXARRI

Gipuzkoako Bazkundearen 10 Bitxiak sarietako bat jaso zuen Lasarte-Oriako Imagine arropa dendak. Buruntzaldea eskualdeari dagokiona lortu zuen hain zuzen, Ainhoa Oyarbide negoziaren jabeak, eta horren inguruan hitz egin zuen TXINTXARRI-rekin.

Kontatu zuen saria irabaztea "sekulako poza eta esperientzia

22. Korrikaren aurrekari gisa, lanketa berezia TXINTXARRI-K

Hiru urte eta gero, 22. Korrika kalera itzuli zela-eta, aurrekari gisa egitasmo horren lanketa berezia egin genuen. Besteak beste, Iñaki Dorronsoro Maioz Lasarte-Oriako Korrika Arduraduna eta egitasmoak omendutako Pirritx, Porrotx eta Marimotots pailazoak elkarrizketatu genituen. Solasaldi bikainak izan genituen horiekin.



Iñaki Dorronsoro ezkerrean, eta pailazoak eskuinean. TXINTXARRI ETA KATXIPORRETA

berri bat" izan zela. Oso eskertuta agertu zen bere dendako bezero guztiekin, "munduko onenak" direla nabarmendu zuen, eta gailendu, ahalegin handia egiten duela horiei guztiei ahalik eta tratu gertukoena emateko.

'Juguetes de niño sádico' liburua ondu zuen Olga Serranok

Hilaren 5ean aurkeztu zuen lana Serranok Donostian. Azaldu zuen nobela bat idazten zuen lehen aldia zela, eta Alberdania argitaletxearekin publikatu zuen. Aurkezpen saio horretan kontatu zuen protagonistak "krisi gogor bat" bizi duela, eta horrekin bilaketa pertsonal prozesu bat hasiko duela, gizakien arteko harremanetan ardaztuta.

Korrika aurreko beroketak

Euskararen aldarriaren erakusgarri den Korrika antolatzen laguntzeaz gain, kilometroa erosi zutenak ere batu ziren kultur etxean. Ongietorri gisa, Erketz EDTko dantzariak agurra dantzatu zuten, eta ondoren, Earra bertso eskolako irakasle Lierni Rekondok bertso pare bat bota zituen. Maider Segurola kazetariak egin zituen aurkezle lanak, eta herriko pailazoak ere aritu ziren oholztan, Xumelako kideekin batera. Munterri AEK-ko ordezkariak ere igo ziren agertokira, pailazoaren eskutik Txoribox habia jasotzeko.

Txoribox egitasmoan parte hartu zuten herriko ikasleek


Aranzadi Zientzia Elkartearen eskutik, Txoribox egitasmoan parte hartu zuten Lasarte-Oriako ikasleek. Txorien ezagugarriak ezagutu eta habiak egin ditzaten habia kutxak eta jantokiak sortzen aritu ziren, trebetasun handiz. Porrotx pailazoaren bisita eta laguntza izan zuten.

Ostadarreko atleta gazteak lehen postuetan, Eskolarteko Gipuzkoako Txapelketan

Ostadar Atletismoa saileko gaztetxoek Eskolarteko Gipuzkoako Txapelketako lehen saioa lehiatu zuten, hilaren 3an, Eibarko Unbe zelaian. Ordezkaritza mardula eraman zuen herriko atletismo taldeak, 30 parte hartzaile izan ziren proba ezberdinetan eta lehen postuetan sailkatu ziren atleta gazteak. Nabarmenezkoak izan ziren lortutako bost dominak. Alebin mailan, Eider Redondok altuera-jauzi proban (1,35 m.) eta 150 metro lasterketan (20,42) lehen postua eskuratu zuen.

Dominak eta errekorrak bilduta etxeratu zen Zudaire Berlinetik

Buruntzaldea IKTKo Nahia Zudaire Borrezok Berlin Para Swiming World Series lehiaketan parte hartu zuen Espainiako selekzioarekin. Bere ohiko mailan aritu zen eta urrezko domina bat zein Espainiako lau errekor berri lortu zituen igerilari gazteak.



Igerilaria, Berlinen. NAHIA ZUDAIRE

Euskadiko txapelkun izan zen Vithas Gaztedi errugbi taldea

Euskal Ligak jardunaldirik izan ez arren, hilaren 2an, zortzigarren

jardunaldian atzeratutako Vithas Gaztedi eta Universitario de Bilbaoren arteko norgehiagoka jokatu zen, Bilbon. Partida garrantzitsua zen bi taldeak Euskal Ligako lehen bi postuetan baitzeuden eta txapelketa zegoen jokoan. Aizpea Racamonde herritarra kide duen Gasteizeko taldeak neurketa galdu zuen, 19-12; Euskal Ligako trofeoa zakuratu zuen, ordea.

Sortzen jarraitzeko gogoz agertu ziren Kinada musika taldeko bi kide, TXINTXARRI-K egindako elkarrizketan

Kontzertua eskaini zuen Kinada taldeak hilaren 9an Jalgi kafe antzokian, eta aitzakia hori baliatuta elkarrizketa egin genien. Jagoba Mendizabal eta Julen Uruzola taldekideekin hitz egin genuen, eta beste hainbat konturen artean azaldu zuten sortzen jarraitzeko gogoz zeudela. Orduko kontzertuez, diskoaren eta taldearen sorreraz, etorkizunaz eta beste hainbat kontuz ere solastu ziren.

'Noaindik Amaiurrera 1522-2022' solasaldia egin zuen Beñi Agirrek

Beñi Agirre kazetari eta idazleak luze eta zabal hitz egin zuen Nafarroako erresuma zenari buruz Antonio Mercero gunean. Noaingo eta Amaiur gazteluko gudak oinarri hartuta, gertakari historiko, anekdota, analisi eta gogoeta ugari partekatu zituen aretora bildutako ikus-entzuleekin.

Aitor Manso bigarren sailkatu zen Opakoako igoeran

Hilaren 9an, Opakua igoera lehiatu zen. Norgehiagoka irekia zegoen; azken denboraldietan nagusi zen Joseba Iraolak ez

zuen parte hartu. Aitor Manso herritarrek hutsune hori baliatu nahi zuen podiumeko lehen postura igotzeko. Ez zuen lehena izaterik lortu, bai, ordea, bigarren.

Joseba Sarrionandiarekin hitz egin eta hura elkarrizketatu zuten Oriarteko ikasleek

Oriarte institutuko Literatura Unibertsaleko ikasleek euskal idazle ezaguna elkarrizketatu zuten. Luze hausnartzeko galderak ez ezik, motz erantzutekoak ere egin zizkieten. Ikastetxeak TXINTXARRI aldizkariarekin duen lankidetzaren bitartez, idazleari egindako elkarrizketa hura apirileko azken zenbakian argitaratu genuen.

Berdintasun teknikaria eskatzeko bat egin zuten herritarrek

Lasarte-Oriako Mugimendu Feministak 2022ko aurrekontuetan "urgentziaz" herrira egokitutako berdintasun plan sendoa osatzeko diru partida jasotzeko eskatu zion udalari, baita erabaki ahalmena izango zuen berdintasun mahaia edo kontseilua sortzea ere. Hainbat norbanako eta mugimendu feministako kide batu ziren apirilaren 30ean Mirentxun egindako prentsaurrekoan.

Udaberriko Bertso Saioak hartu zuen kultur etxeko oholta

Ohiko urtarora itzuli zen Udaberriko Bertso Saioa; bertsolariek beste sortzaile batzuekin partekatu zuten agertokia. Ane Labaka, Alaia Martin eta Maialen Lujanbio aritu ziren bertotan, baina kultur etxeko taulagaina beste sortzaile batzuekin partekatu zuten. Aurkezle lanetan Bea Egizabal aritu zen.

Erakustaldi ederra egin zuten herriko dantza taldeek, Dantzaren Nazioarteko Egunaren harira

Dantzaren Nazioarteko Eguna ospatzeko IX. Dantza Topaketa egin zuen Kukuka Antzerki eta Dantza Eskolak. Eurekin parte hartzera gonbidatu zituzten herriko hainbat dantza eragile, eta txukun-txukun prestatutako koreografiaren emanaldi bikainak eskaini zituzten denek.

Azkorteko erromeriaren itzulera

Lasarte-Oriako Udalak eta Ttakun Kultur Elkarteak antolatuta, erromeria egin zuten Azkorten. Eguraldi ona eta azken urteetako hutsunea osagai aproposak izan ziren baselizara jende ugari bertaratzeke. Meza, erromeria, bertsolarien saioa eta herri kirolek osatu zuten egitaraua.

Espazio falta azaleratzen

Lasarte-Oriako gazte mugimenduak aldarrikapen eta ospakizun eguna egin zuten maiatz hasieran, egunerokoan espazioarekin dituzten arazoak mahai gaineratu eta kaleak hartuko zituztela nabarmentzeko. Goizetik iluntzera arteko egitaraua aurrera eraman zuten.

XIV. Udaltop-ek hartu zuten kultur etxeko auditorioa



Jokin Bildarratz, Udaltopen. TXINTXARRI

16 urte arteko nerabeentzat hizkuntza politika "eraginkor" bat josteko bidean, ideia eta gogoetak partekatu zituzten XIV. Udaltopen. Bi urte eta gero, ohiko plazara itzuli zen, Manuel Lekuona Kultur Etxera. Lankidetzeta "funtsezkoa" dela errepikatu zuten, etengabe.

Euskararen Maratoia egingo zela iragarri zuen Ttakun KEK

Sei urteren ostean, herriko euskararen jairik handiena bueltatuko zela iragarri zuen Ttakun KEK. Euskararen Maratoiaren izen eta formatu berriak izan dituen egitasmoa ere maiatzean aurkeztu zuten: Euskararen 10. Maratoialdia, eta egitasmo horrek izango zituen hiru faseen berri eman. Ekitaldi horretan ezagutu ziren baita ere zortzikotea osatuko zuten kideak.

Partida zirraragarria, saskibaloijokariak

Ligako azken jardunaldian, partida zirraragarria jokatu zuten Ostadar SKTk, Oiarsoren aurka. Hirugarren laurden berdinduaren ostean, azken minutuetan erabaki zen irabazlea. Talde urdin-beltza 45-33 gailendu zen eta infantil txiki mailako txapela eskuratu zuten.

Kultur Aniztasunaren alde

Munduko Dantzak egitasmoan parte hartu zuten, Oiartzunen, Lasarte-Oriako bi dantza taldek; Kukukak eta Semblante Andaluzek. Mundu osoko dantzen agertoki izan zen aipatu herria, eta jarduera hori antolatzea herritar baten ardura izan zen: Maitane Rebe Igartuarena. Aukera hori baliatu zuten TXINTXARRI-k, berarekin hitz egin eta erreportaje bat argitaratzeko.

Zubietako erraustegia gelditzeko eskatu zuten

Errausketaren Aurkako Mugimenduak deituta, 150 bat lagunek bat egin zuten hilaren 14an Zubietako erraustegira egindako oinezko martxan. Abiatu aurretik, Usurbilgo Elektro Papo elektrotxararak ordu erdiko saioa egin zuten Okendo plazan.

Froilan Elespe herriko etxe berria inauguratu zuten Lasarte-Oriako PSE-EEK

Ganbo kaletik Kalbario bidera lekualdatu zuten haren egoitza Lasarte-Oriako PSE-EEK. Itxura erabat berria izanagatik, izena ez zuen aldatu: Froilan Elespe herriko etxeak ateak zabaldu zituen, alderdiko zenbait karguk eta jarraitzailek babestuta.

Ostadar Boileboleko jubenilek Gipuzkoako txapelketa irabazi zuten



Boleiboleko jubenilak. OSTADAR BOLEIBOLA

Ostadar Boleibola saileko jubenilek Aldapeta Maria A taldea garaitu zuten Gipuzkoako txapelketako finalean. Lehen seta galtzen hasi arren, jokalaria urdin-beltzek gogor borrokatu eta itzulua eman zioten neurketari, merezitako saria eskuratzeko.

Zabaletako festen atarian, auzotarrei elkarrizketa

Zabaleta Auzolan elkarteak lagunak mimo eta ilusioz prestatu zuten 2022. urteko festen egitaraua: hamaika jarduerak iragarri zituzten, eta horien berri emateko, elkarrizketa egin genien aldizkarian. Aukera hori baliatu zuten lasarteoriatar guztiak jaiez gozatzera gonbidatzeko.



Dantzari Txiki Egunean parte hartu zuten dantzari batzuk, emanaldian. TXINTXARRI

Dantzari Txiki Eguna

Bi urteko hutsunearen ondoren, dantzari gazteek kaleak bete zituzten maiatzaren 29an. Berriro elkartu ziren 32. Dantzari Txiki Egunean Faltzesko Makaia, Usurbilgo Orbelde, Kukuka eta Erketzeko dantzariak. Dantza gogoz egin zuten.

Ingurunea zaintzeko premiazentsibilizatzeke, txoriak ezagutzeko ibilbide batekin hasi zen 2022ko Aste Berdea

Lur bakar bat lelopean, Lasarte-Oriak bat egin zuten Aste Berdearekin, herritarrak natura inguruneaz arduratzeko beharraz kontzientziatzea asmo duen egitasmoarekin. Lehen jarduera hilaren 29an egin zuten, hegaztien mundua ezagutzeko ibilbide bat.

Saltzaileen bizitzako pasarteei jarritako bertsoak

Uxue Alberdik idatzitako Dendaostekoak eleberriko zenbait pasarte eta haiek iradokitako gaietan oinarrituta, bertso irakurraldia egin zuten maiatzaren 27an Manuel Lekuona Kultur Etxean. Hitzordu hori oinarri hartuta, idazlea bera elkarrizketatu genuen, eta behin saioa oholtzaratuta, hori ere bildu genuen aldizkarian.

Eider Redondo gazteak urrezko domina irabazi zuen proba konbinatuetako Gipuzkoakoan

Ostadar Atletismoa saileko alebin eta infantilek Proba Konbinatuetako Gipuzkoako Txapelketa lehiatu zuten. Atletak lehen hogeita bosten artean sailkatu ziren; Eider Redondok urrezko domina lortu zuen bi proba irabazi eta beste batean bigarren izan ostean.

Ostadar SKTren denboraldi amaierako festa

Oriarte BHI Landaberrin egin zuten Ostadar SKTk denboraldi amaierako jaialdia maiatzeko azken larunbat goizean. Taldeek euren sariak banatu zituzten, Kirolari Onenarena Nahia Zudaire igerilariak eraman zuten etxera, Auzolan saria, aldiz, Izan Inurri egitasmoak jaso zuten. Giro bikaina izan zen, Oriarte institutuko estalkian.



Ostalaritza - Saltokiak
Espezialistak
ekipamenduak instalatzen

Urte berri on!



ANTONIO BENITO - GESBOX, S.L.U.

Aralar plaza 1, LASARTE-ORIA info@gesbox.net / www.gesbox.net

txintx  rri
jarraitu herriko albisteak sarean



www.txintxarri.eus

Lasarte-Oriako toponimia ezagutu zuten herritarrek Luis Mari Zalduaren eskutik

Toki izenak: inguruaren aurkibide ibilaldiaz gozatu zuten dozenaka herritarrek, Lasarte-Oriako Udalak eta Artelatzen enpresak elkarrekin antolatuta zuten Aste Berdean. Toponimian aditua den Luis Mari Zalduak eman zizkien azalpenak partaideei. Gai horri buruz gehiago jakiteko, harekin elkartu zen TXINTXARRI, elkarrizketa bat egiteko. Toki izenak "oso praktikoak eta erabilgarriak" direla azpimarratu zuen, eta Lasarte-Oriako toponimiari buruz ere hitz egin zuen.

Ruben Lucasen afixa aukeratu zuten 2022ko sanpedroak iragartzeko

Hamasei lan aurkeztu zituzten lehiaketara eta Ruben Lucasena izan zen garaile. Udalaren irudi korporatiboa oinarri hartuta osatu zuen lana, eta bertan irudikatu zituen sanpedroetako jarduera nagusienak: txupinazoa, Sorgin Dantza, buruhandiak eta danborrada.

Ostadarren Auzolan saria jaso izana, aitzakia bikaina izan inurri elkarrizketatzeko

Ostadar SKTren Auzolan saria jaso zuen Izan Inurri elkarteak, eta aintzatespen hori aitzakia hartuta, elkarrizketa egin genien. Ohore handia" izan zen aitortza elkarteko kideentzat, eta bertan bizitako berri eman zioten TXINTXARRI-ri. Horrekin batera, Tabuen kutxatik oholtzara bertso saio musikatzu ere hitz egin zuten.



Izan Inurriko bi kide. TXINTXARRI

Udaberri torneoko txapeldu izan zen Eguzki Areto Futbol taldea

Liga zazpigarren postuan amaitu ostean, arantzaxoa kendu zuen Eguzki Areto Futbol taldeak; Udaberri torneoko txapeldu izan zen. Francisco Javier Kixki Perezek

XX. Antzerki eta Dantza Astea ospatu zuen Kukukak

Kukuka eskolako kideek, XX. Antzerki eta Dantza Astea ospatu zuten, lanabes ugariarekin herria koloreztatu zuten: desfilea, antzerkia, euskal dantza, sorkuntza, dantza garaikidea... Manuel Lekuona Kultur Etxean diziplina horietan guztietan oinarritutako emankizunak egin zituzten, eta, ordainetan, ikus-entzuleen txalo zaparrada ederrak jaso.



Kukukako kideek desfile koloretsua egin zuten herrian barrena. TXINTXARRI

zuzendutako jokalariek Aldapeta C garaitu zuten, 7-3. Jokalariek erakutsitako heldutasuna izan zen gakoa prestatzailearen hitzetan.

Lanaldi jarraitua aldarrikatuz

EAEko institutuek 2022-2023 ikasturtean lanaldi jarraiturik ez edukitzea erabaki zuen Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailak. Horrek "haserrea eta ezin ulertua" eragin zion Lasarte-Oriako Oriartekide institutuko komunitateari, eta kontzentrazioak egin zituzten ikastetxe atarian.



Mobilizazioaren une bat. TXINTXARRI

Agenda 2030 programan landutakoak pleno aretora eramán zituzten ikasle gazteek

Lasarte-Oriako udalbatzar aretoan izan ziren herriko ikastetxeetako haurrak. Eskolako Agenda 2030 programan landutakoak aurkeztu zituzten udal ordezkariak. Agustín Valdivia alkateak, Zerbitzu Publikoetako zinegotzi David Mateosek, Hezkuntzako batzordeburu Maite Iglesiasek eta Parte hartze saileko arduradun Nagore Duranek egin zieten harrera.

Agur esan zioten Teresa sorginari Hiru urte eta gero, gogoz hartu zituzten auzoko festak Zabaletako bizilagunek. Jarduera bete

egitarau aurkeztu zuten auzo elkarteak, eta asteburu bikaina igarota agurtu zuten Teresa sorgina.

Furundarena eta Rekondo, Euskadiko txapeldu berriak

Herriko atletak bi hitzordu nagusi izan zituzten hilaren 4an eta 5ean: Euskadiko txapelketa eta 16 urtez azpiko Gipuzkoako txapelketako azken saioa. Ostadar SKTko bost kide izan ziren lehian Durangon Euskadiko txapelketan, eta bi urrezko dominarekin itzuli ziren herrira.

Domina eta marka uzta bikaina, igerilariek

Buruntzaldea IKTko igerilariek dominak eskuratu eta 37 marka pertsonal ondu zituzten. Hiru hitzordu lehiatu zituzten igerilariek eta guztietan markak ontzeaz gain, podiumean izan ziren. Nahia Zudaire Igeriketa Egokitutako Euskadiko Txapelketan garaile izan zen, eta ekainaren 19ra arte, Munduko Txapelketan lehiatu zuen.

Transmaribollo kolektiboaren sorrera

Herritar talde batek LGBTIQ+ kolektiboa osatzen duten pertsonen borroka ikusarazteko eragile bat sortu zuen: Lasarte-Oriako Transmaribollo Kolektiboa. Lehen ekintza gisa, manifestazio bat egin zuten, Okendo plazatik abiatuta.

Izan Inurriren 'Tabuen kutxatik, oholtzara' bertso saioa

Izan Inurri egitasmoak antolatutako bertso saio musikatuan parte hartu zuten Jone Uria, Onintza Enbeita, Oihana Bartra eta Maider Arregi bertsolariek. Ixak Arruti eta Gari

Otamendi musikariek jotako doinuek lagunduta, Amaia Agirrek jarritako gaiei bertsoak jarri zizkieten.

Rocioko erromerian ospatu zuen Semblante Andaluzek bere 30. urteurrena

Huelvako El Rocion hilabete hasieran ospatu zuten erromeria eta astebete geroago Lasarte-Oriara ekarri zuen erromesaldiaren izpiritu bera Semblante Andaluzek. Hamaika ekimen izan ziren asteburuan. Igandea izan zen egun handia, Zumaburuko Arantzazuko Ama parrokian ohiko meza rozieroa egin zuten. Altarearen albo batean Rocioko ama birjinaren irudia zegoen, bestean, berriz, eskaintzarako olibondoa, gozoak eta olioak. Semblante Rociero koruak girotu zuen elizkizuna, eta amaieran, Duende taldeko lau neska gaztek dantza egin zuten. Aitzakia hori baliatu zuen elkarteak, bere 30. urteurrena ere ospatzeko.



Semblantekoak, erromerian. TXINTXARRI

Etxeberría eta Perez izan ziren garaile Lasarteko Sarian

Benjamin mailatik senior mailara Buruntzaldea IKTko igerilariek proba berezia lehiatu zuten, Lasarteko 31. Saria. Talde gonbidatuen aurka aritu ziren

herriko elkarteko kideak, eta domina ugari batu zituzten; emakumezkoen sari nagusia etxean geratu zen.

Giro ederra I. Lagunarteko Taula Xake txapelketan

Pilota hotsek erlojuen soinuei egin zieten lekua Mirentxu Trinketeen. I. Lagunarteko Taula Xake txapelketa jokatu zen bertan eta Abadiñoko taldea izan zen nagusi. Bizkaitarrek sari nagusia eraman zuten arren, asko ikasi zuten jokalariek guztiek, baita txapelketako antolatzaile Taula Xake Klubeko kideek ere.



Txapelketako partaideak. TXINTXARRI

Bost urteko lanak emandakoaren erakusle

Oriarte BHIko ikasle talde batek Gure artean dokumentala ondu zuen, Lasarte-Oriak urteetan zehar jasan dituen aldaketak hizpide hartuta. Ikastetxe horretan bost urte daramatzate Zinema (h)abian egitasmoan parte hartzen; ordutik, bost ikus-entzunezko ondu dituzte. Horren berri ematen zuen artikulua prestatu zuten, eta guk argitaratu, Ikastetxeak TXINTXARRI aldizkariarekin duen lankidetzaren bitartez.

Sanpedroak iragartzeko prentsaurrekoa egin zuten udalak eta eragileek

Ekainaren 28tik uztailaren 2ra ospatu zituen Lasarte-Oriak herriko zaindariaren festak: San Pedro Jaiak. Makina bat jardueraz osatutako egitaraua prestatu zuten udalak eta eragileek eta horren berri eman zuten, prentsaurrean. Jaiei hasiera emateaz arduratzen den omendua ere iragarri zuten hitzordu hartan; Nagusilan Adin Nagusikoen Boluntariotza Taldea, eta aurrekontuaren berri ere eman zuten udal ordezkariak: 187.789 euro.

San Pedro Jaian atarian, zenbaki berezia argitaratu genuen: 1591.a

Dinbi Bandak 10 urte instrumentuak astintzen

Pandemiak eragindako etenaldiaren ostean, emanaldiei berrei ekin zien herriko batukada taldeak. Sanpedroetarako emanaldia iragarri zutela, eta 10. urteurren urtea zutela baliatuz, elkarrizketa egin genion.

Sorgin Jaian 20. urteurrena 20 urte igaro dira Sorgin Jaiek lehengo gure herria sorginkeriaz eta edabez bete zutenetik. Azken bi urteetan, egoerari moldatutako egitaraua eskaini zuten. Aurtengoan, berriz, programa osatuagoarekin urteurren berezia ospatu zuten. Horregatik, euren programazioaren berri emateaz gain, argazki historikoez osatutako galeria bat ere argitaratu genuen.

Txupina jaurtitziaz arduratuko zen omenduarekin hizketan

Sanpedrotan Nagusilan elkarrekin omendu zuen udalak, eta hori hala izaki, bertako kide Encarni Baztan del Rio kidearekin hitz egin genuen; "ohore handia" zela nabarmendu zuen.

Artxiboko irudien galeriak

1993ko urrian sortua izanik, TXINTXARRI-k 1994tik eman du herriko festen berri, etengabe. Ondorioz,

momentu eta oroitzapenez betetako artxiboa osatu genuen, argazki galeria formatuan, duela hamabost urteko jaiak gogora ekarriz.

Festetako nola egin kontatu ziguten

Koloretsuak gehienetan eta mahuka luzekoak, batzuetan soinean jantziak eta beste hainbatetan gerrian lotuak, baina Kuadrilla Egunean ez dute hutsik egiten. Horiek nola egin eta zein oihal erabili biltzeko, Fernandez Ehunak-eko saltzaileekin eta Ione Artola jostunarekin hitz egin genuen.

Transmaribollo plataformako kideekin hizketan

LGBTIQ+ kolektiboaren borroka herrira ekarri eta ageriko egiteko xedez, hilaren 28rako manifestazioa iragarri zutela aprobetxatuz, **Transmaribollo** plataformako kide Kris Alvarez eta Tasio Arrizabalagarekin batu ginen.

Adarra sariaren garaileari elkarrizketa

Hilaren 21ean, Victoria Eugenia Antzokian, Joseba Saria jaso zuen, eta harekin bildu ginen, besteak beste, *Egon edo ez egon* azken diskoaren gainean galdetu eta aldizkarian argitaratzeko.

San Joan suan erre zituzten urteko bizipen txarrak

Beste ospakizun asko bezala, San Joan bezperakoa ere aurtengo ekainean itzuli zen. Eurria gogotik oztopatzen saiatu zen arren, dantzari, musikari eta herritarrek tinko eutsi, eta urteko gauza txarrak kiskali zituzten.

Jarduera ugari, jaien aurretik eta bitartean

Sanpedroen atarian zein festa giro betean, zenbait eragilek jarduerak aurrera eramane zituzten, lasarteoriatarren motorrak piztu eta bero mantentzeko asmoz. Horien artean egin zituzten Biyak Bat egoitzako joko eta sari banaketa, Zunba maratokia, Alboka abesbatzaren eta Zero Setteren emanaldiak eta Gure Esku Dago dinamikaren Pirinioetako Bidearen ekintza: Unanua mendiaren argizatzea.

Ekainaren 28a: esperotako jaien itzulera

Hiru urte eta gero, beti ezagutu izan ditugun San Pedro Jaiak ospatzen hasi ginen. Udaletxe zaharrenean parean bildu aurretik, nabaritu zen giro ederra, Okendo plaza eta inguruetan batez ere: inoiz baino blusa gehiago ikusi ziren kaleetan, kuadrilla gazte ala heldu izan. Lehen eguneko egitaraua osatu zuten, besteak beste, goizeko etxafuegoak, arratsaldeko Nagusila elkarrekin jaurtitako txupinak eta Sorgin Jaiak-enak, baita gaueko zikiro jan eta DJ Fantasiaren emanaldiak ere.

Ekainaren 29a: San Pedro Eguna

San Pedro eguna trikiti eta danbor soinuekin hasi zen. Giro ederrean, Ttirriki Ttarrakako trikitalari eta pandero joleek zein Extremadurako danbolin joltzaileek erdialdea esnatu zuten. Lasarte-Oriako zaindariaren

Sanpedroek emandakoa eta horietan bizitakoaren berri ere eman genuen

ohorezko meza egin zen San Pedro parrokian, eta San Pedro Jaietako omenaldiak bete zuten kultur etxea. Nagusilan elkarteko kideek 20 urtetan egindako lanarekin aintzatespena jaso zuten udalaren eta herritarren eskutik.

Arratsaldean, aldiz, haurrak puzgarrietan ibili ziren, eta gazteak, berriz, Sorgin Jaiak-ek antolatutako orientazio jolasetan dibertitu ziren. Helduentzat ere izan zen planik; Ttakun KEk antolatutako sagardo dastaketa. Gauen, berriz, urteroko bertso saioak hartu zuten kultur etxea, eta musika emanaldiek Andatza eta Okendo plazak.

Ekainaren 30: Musikaz betetako eguna izan zen

Eguna goibel hasi zen, euria mara-mara egin zuen. Helduek lerro dantza erakustaldia eginez hasi zuten eguna kiroldegian, eta Loidibarren pilotalekuan, sanpedrotako pilota txapelketako finalak jokatu zituzten kirolariak.

Arratsaldean haurrentzako parkea eta xexenez gain, pilota profesionaleko partidak izan ziren. Saiatu arren, Arteaga II.ak eta Eskirozek ezin izan zituzten Alberdi II eta Elizegi garaitu. Gazte gunean, LOUH taldearen erritmora dantzatu zuten nerabeek eta Jalgi kafe antzokian Txili Papar eta Bar Remigiok lagun ugari bildu zituzten. Gauean, berriz, Azabache taldearen kontzertura eta Nemux DJaren saiora joan zirenen batez beste adinak oso urruti izan ziren.

Gazteek izan zuten zer ospatu Sorgin Egunean: sorgin bazkaria, bingoa, olimpiadak, Alargun Beltzak eta Lizartxo taldeen kontzertuak

eta danborrada egin zituzten, pintura poteak gerrian jarrita.

Uztailaren 1a: motxila bete jarduera eta ikuskizun

Festetako azken jolas saioa egin zuten haurrek, eta zirikatzaileenek, berriz, exenengandik ihesi aritu zire. LOZET konpainiako erraldoi eta buruhandiak ere horien arratsaldea girotu zuen. Eta Motxila 21 taldeak dantzan jarri zituen herritarrek, gauari ongi etorria egin aurretik.

Parranda gau bikaina izan zer uztailleako lehena ere. El D rogasek hartu zuen Okendoko oholtza lehenik, eta gauean, berriz, Zea Mays-ekoek. Eta helduenek La decada prodigiosa taldearekin gozatu zuten gau hurra.

Uztailaren 2a: azken jai eguna

Iturengo ttuntturroen doinuek esnatu zuten herria, eta Atsobakarrek zelaian, zaldi eta gizonen arteko erronka jokatu zen eguerdian. Sorgin gunean, Elkartasun Egunari hasiera eman zioten, eta stean, bapo bazkaldu zuten.

Azken gaueko traka izugarria izan zen; etxafuegoak, ohi bezala, Atsobakar parkean jaurti zituzten. Bien bitartean, Okendo plaza dantzan eta saltoka jarri zuen Modus Operandi taldeak, eta gauerdia iristeko minutu gutxiren faltan, itxura beldurgarriko pailazo talde batek hartu zuen plaza: Psychoclown ikuskizunaz gozatu zuten lasarteoriatarrek. LOZET elkarteko lagunak azken zezensuzkoak atera zituzten eta Skakeitan taldeaekin lepo bete zen Okendo, azken parranda egiteko asmoz.



2023 zoriontsua opa dizuegu!

Zirkuito ibilbidea, 12 20160 • LASARTE-ORIA
Tel. 943-37 14 40 Mugikorra: 608 39 18 85
carroceriaslasarte@carroceriaslasarte.com

Carrocerías Lasarte Karrozeria

Trebeak gara kolpe handiak konpontzen

• Kabina labeduna

• Txapak zuzentzeko oinarri unibertsala

• Tapizatuaren garbiketa

Aurrekontuak onartu zituen udal korporazioak

Ekaina amaieran egin zuen udal korporazioak aurtengo aurrekontuak onartzeko ezohiko bilkura. Ia bi orduz eztabaidatu eta alderdien emendakinak aztertu ostean, egitasmoa onartu zuten, udal gobernu sozialistaren aldeko bozkekin eta EAJ-PNVren abstentzioarekin. Aurkeztutakoarekin ados ez, eta aurka azaldu ziren EH Bildu eta Elkarrekin Lasarte-Oria Podemos.

Ostadar Inklusioko kideek, emaitza onak txapelketetan

Ostadar Inklusioa taldeko kideak ekaina amaieran Atletismo zein Boccia txapelketetan lehiatu ziren. Ane Asensio eta Jon Mendoza atletismo saileko kideak Gijonen izan ziren Espainiako txapelketan; Xuban Santin, berriz, European Para Youth Games lehiaketako Boccia proban parte hartu zuen, Finlandian. Emaitza onak lortu zituzten; Santinek esate baterako zilarrezko domina jantzi zuen.

Texas Lasartearrako taldeak, ederki Salou Youth Cup-ean

Texas Lasartearra futbol taldeko infantil eta kadete taldeek Salou Youth Cup txapelketa jokatu zuten ekainaren 29tik uztailearen 3ra. Infantil taldeak hirugarren postua eskuratu zuen; kadeteek, berriz, integrazio kopa.

Udako Txoko eta Kanpaldietan, mila abentura

Ttakun Kultur Elkarteak antolatutako Udako Txokoak eta kanpandiak burutu ziren. Haur eta gaztetxoek primeran pasa zuten.



Udako Txokoetako haurrak dantzan. TXINTXARRI

Patxi Larrañaga, A bocados saioan

Patxi Larrañaga harakina ETB2-ko Abocados saioan agertu zen hilaren 1ean. Ander Gonzalezekin batera merienda ederrak nola prestatu kontatu zuen.

Narrea Furundarena, bigarren 23 urtez azpiko Espainiako txapelketan

23 urtez azpiko Espainiako txapelketan, Santanderren, Kantabrian Ostadar SKTko Narrea Furundarenak zilarrezko domina jantzi zuen jauzi hirukoitzeko proban.

Santa Ana eguna ospatzeko, hamaika ekimen

Azken urteetako ospakizunak Covid-19ak baldintzatu bazituen ere, aurten ohiko egitaraura itzuli zen Santa Ana eguna.

Egun berezi horretarako motorrak berotze aldera, udalak artisauen azoka antolatu zuen hilaren 24an. Janari eta artisauek Mercero eta Okendo plaza hartu zituzten. Herriar ugari izan zen azokan eta kuxkuxean ibiltzeaz gain, erosi ere egin zuten. Etxeko txikientzat tailerrak antolatu zituzten.

Aterpea elkarteak eta herriko zenbait tabernarik ere pintxo bereziak prestatu zituzten, bakailaoa eta piperra oinarri hartuta.

Eguneko jarduna

Gure herriko usaioari jarraikiz jarduera ezberdinak antolatu zituen hilaren 26an Ttakun Kultur Elkarteak udalaren laguntzaz. Goizean meza, luntxa eta



Santa Ana eguneko epaiketaren ostean, deabruak akusatua erre zituen. TXINTXARRI

Erketz EDTren eskutik Santa Ana karkaban dantza izan ziren.

Arratsaldean, Santa Ana Parodiako antzezleek desfilea koloretsua izan zen. Antzezlanari hasi baino lehen aintzatespena jasoko zuen Dinbi Banda Batukada Taldeko zenbait kide ere animatu ziren kaleak zeharkatzera.

Eta ostean, Josu Jone Prezioandia Oktanogutxi eta Ibertrolas Prezioandia

Peromuygalan akusatuen epaiketa berezia izan zen Okendo plazan; garesti ordaindu zuten bi alprojek urtean zehar Lasarte-Orian triskantzak egin izana.

Bestalde, Santa Ana pala txapelketako finala ere jokatu zen. Jon Pello eta Iker Artetxe anaiak eta Xabier eta Gari Arteaga lehengusuak aritu ziren nor baino nor, eta lehen bikotea izan zen garaile.

Federazioak "Miguel Angel Blancoren eta terrorismoaren biktimen oroimenez" elkarretaratzea egiteko deialdiarekin bat eginez, Lasarte-Oriako Udalak elkarretaratze ixila egin zuen.

Karmengo Ama Birjinaren ohorezko jaiak, Orián

Hilaren 16an, Karmengo Amaren egunean, egitarau berezia antolatu zuten oriatarrek. Goizean kapera inguruan bildu ziren euren zaindariaren eguna ospatzeko. Arratsaldean, berriz, Brunet parkera lekualdatu zituzten ospakizunak.

Raul Ramos herritarra, lehen postuetan Udako denboraldian

Udako denboraldiko zortzigarren jardunaldian Raul Ramos herritarra izan zen protagonistetako bat. Hipodromoan jokatu zen laugarren lasterketan bigarren postuan sailkatu zen herriko jockeya Lady McQueen behorra gidatuz eta Groupe Carrus Sari Nagusiko azken metroetan lehia bizian izan zen Kennocha behorarekin.

Herritarrek, Lesakako Rallyan

Lesakako Rallysprinta lehiatu zen hilaren 23an. Nafarroako Txapelketako proban 84 ibilgailu batu ziren eta lasarteoriatarrek izan ziren maila ezberdinetan parte hartzen. Mikel eta Ekaitz Kortajarena anaiak 2 mailako eta A klaseko bigarren postuan sailkatu ziren.

Francisco Perez Gonzalez artzapezpikua, komentuan

Francisco Perez Gonzalez Iruñea-Tuterako artzapezpikua eta Donostiako administrari apostolikoa hilaren 24an elkartu zen Ama Brigitarren komentuan dauden mojekin.



Itzuliarekin bat egin zuen taldea. TXINTXARRI

Presoen eskubideen aldeko bizikleta itzuliarekin bat

Izan Bidea dinamikaren barruan, euskal presoen eskubideen alde eta haiei ezartzen zaizkien salbuespen neurrien aurka Bizikleta Itzulia egin zuten bosgarren urtez. Etxarrin (Nafarroa) hasi eta Donostia zuen jomuga. Horregatik, hilaren 24an lasarteoriatarrek bat egin zuten hiriburuan amaitu zen ekintzarekin.

Arraun Ligak eta Euskadiko txapelketako podiuma

Donostia Arraun Lagunak eta Hondarribia Bertako Igogailuak Euskotren Ligako zein ETE Ligako jardunaldi ezberdinak lehiatu eta lehen postuarengatik aritu ziren borrokan. Traineru modalitateko Euskadiko txapelketa ere jokatu zen hilaren 25ean; Lugañene

txapelkun izan zen eta berdeak, aldiz, hirugarren.

Isabel Huesok, 100 urte

Hilaren 27an, ehun urte bete ziren Isabel Hueso El Saugo herrian, Salamancan jaio zenetik. Arratsaldean bere senideez inguratuta ospatuko zuen urteurren berezia. Aurrekari modura, ordea, lore sorta bat eman zioten Lasarte-Oriako udaleko ordezkariak.



'Gazteak' ikuskizuna. TXINTXARRI

Kale antzerkiak, zinema proiektioak eta dantza zirkuitua izan ziren

Aire librean izan ziren hilabeteko kultur deialdiak. Okendo plazan kale antzerkiak, zinema proiektioak eta dantza ikuskizunak izan ziren herritarren gozamenarako.

Maialen Chourraut berriro lehiatzen

Otsailean sorbaldako ebakuntza izan zuen Maialen Chourraut herritarrek. Uztaile amaieran lehiatzeko prest zegoen piraguista eta Eslalomeko Munduko Txapelketan Augsburgen, Alemanian egin zion aurre lehen hitzorduari. Finalerako sailkatu eta bosgarren postuan amaitu zuen proba.

Saninazioak ospatu zituzten Basaundi Bailaran

Hileko azken asteburuan San Inazio Jaiak ospatu zituzten Basaundi Bailarako auzotarrek. Musika, jolasak eta jai giroa nagusi izan ziren. Ekimenen zerrenda ez zen laburra izan.

Herriko igerilariak bikain, txapelketa ezberdinetan

Igerilekuan zein Itsas Zeharkaldietan ederki lehiatu ziren herriko ordezkariak. Espainiako, Euskal Herriko zein Gipuzkoako maila ezberdinetako txapelketei ederki egin zieten aurre eta marka ugari ondu zituzten. Bidasoa XXI taldeko Ainhoa Martin herritarrek, esate baterako, zilarrezko domina jantzi zuen Espainiako txapelketako 400 m. lau estilo proban. Buruntzaldea IKTko Nora Imazek, aldiz, junior mailako Euskadiko zein Gipuzkoako txapelak eskuratu zituen.



Elkarretaratzearen irudia. TXINTXARRI



Juana Iceta 100 urte egin zituen. L-O UDALA

Juana Iceta herritarren mendeurrena ospatu zuten

Juana Iceta herritarrek 100 urte bete zituen abuztuan, eta udalak ekitaldi xume baten bidez zoriondu zuen. Arrosa sorta bat eta familia, lagun eta Atsobakar egoitzako gainerako egoiliarren mezuak eta maitasuna jaso zituen zorionduak.

Igerilariak, lehen postuetan

Abuztuan eta irailean zehar, Buruntzaldea IKTKo igerilariak zein herritarrek hainbat itsas zeharkalditan parte hartu zuten; Igeriketa taldeko Itsaso Tolosak Irlako Igeriketa Zeharkaldiko hirugarren postua eskuratu zuen.

Maialen Chourraut, bikain lehiatzen

Abuztuan, Maialen Chourraut herritarrek Espainiako txapelketari eta Pauen antolatzen zuten Munduko Kopako probari egin zuten aurre. Finaletara iritsi eta lan ederra egin zuen; Eslalom eta Eslalom Extreme mailetan Espainiako txapeldun izendatu zuen eta Pauen bederatzigarren sailkatu zuen. Irailaren 2tik 4ra, Munduko Kopako finalean lehiatu zuen, La Seu D'Urgellen eta seigarren postua eskuratu zuen.

Aterpeak, Stock azoka eta hitzarmen berritzea

Iraileko lehen asteburuan herriko komertzioek eskaintza bereziak egin zituzten bezeroei Stock azokan. Dozena pasa establezimenduk parte hartuko zuten egitasmoan. Hilaren 20an, berriz, hurrengo bi urteetan, Lasarte-Oriako merkataritza

indartzeko eta dinamizatzeko hitzarmena sinatu zuten Aterpea merkatarien elkarteak eta udalak.

Zeresana eman zuten udalbatzarrean Atsobakarreko kirol gunearren proiektuak

Ez ohiko saioan Atsobakarren kirol eta atletismo pista bana eraikitzeke egitasmoaren espedientea onartu zuten udal korporazioak. Proiektuak aurrera jarraitzeko nahikoa babes jaso bazuen ere, oposizioko alderdiek udal gobernuaren kudeaketa kritikatu zuten.

Real Sociedad taldeak EH kopan bale, Txapeldunen Ligan kale

Iraia Iparragirre herritarrek eta Real Sociedad Taldeak hitzordu garrantzitsuak izan zituzten irailean. Hilaren hasieran Euskal Herria Kopa altxa zuten Athletic Club 3-1 garaitu ostean. Txapeldunen Ligako sailkate faseko neurketak ere jokatu zituen Bayern Munichen aurka. Emaizak aurkakoak izan ziren (etxean 0-1 eta Munichen 3-1) eta ezin izan zuten txapelketan aurrera egin.

Extremadura Etxeko kideek Ama Guadalupeko jaiak ospatu zituzten

Jai giroa nagusi izan zen Jaizkibel plazan hilaren 7tik 11ra. Ama Guadalupe Extremadura etxeko jaiak biziberrituta, indartuta eta gogotsu bueltatu ziren hiru urteko hutsunea betetzera.

Herritarrek, saririk ez Kontxako banderan

Kontxako banderako Ohorezko txandan lehiatu ziren herritarrek kide dituzten Donostia Arraun Lagunak eta Hondarribia eskifaiak. Orio eta Lugañeneren arteko lehia bizia izan zen; mirotzen altxa zuren bandera, ordea. Hondarribia,

aldiz, sailkapen orokorreko bosgarren izan zen.

Lasarte-Oriako energia komunitatea, TEK izeneko aurkeztu zuten

Herrian zehar "estrategikoki" kokatuko dituzten sei instalazioren bidez, udalerriko ia biztanle guztientzat energia trantsizioa ziurtatuko du TEK energia komunitateak. Eusko Jaurlaritzak, Gipuzkoako Foru Aldundiak eta Next Generation funtsak diruz lagunduko dituzte egitasmoak; inbertsioa 1.500.000 eurokoa da.



Pilotari buruzko mahai ingurua. TXINTXARRI

Intza elkarteak 75. urteurrena ospatu zuten

Intza elkarteak kideek gogotsu ospatu zuten 1947 urtetik hona urrututako bidea. Hiru egunez jarduera ezberdinak antolatu zituzten, nola ez, pilota protagonista nagusi izan zen.

Aitor Manso, podiumetik podiumera

Aitor Manso gidaria Jata zein Jaizkibel igoeretako podiumetan izan zen. Bi probetan, eserleku bakarreko sailkapenean hirugarren postua eskuratu zuen herritarrek eta zortzigarren mailan, berriz, garaile izan zen.

Intza Alkain, Besarkada sarietako hautagai

Intza Alkain herritarra Euskal Aktoreen Batasunak ematen dituen Besarkada sarietarako izendapena



Axier Arteagak herritarren berotasuna jaso zuen bere agurrean. TXINTXARRI

Arteaga II.aren agurra herrian

Michelin kirol guneko frontoian jokatu zuen Axier Arteaga herritarrek ibilbide profesionaleko azken partida, harmailak bete zituzten lagun, senide eta herrikideen aurrean. Norgehiagoka hasi aurretik eta ondoren, zenbait aitortza egin zituzten Intza Kirol Elkarteko kideek, lagunak eta senideek.

jaso zuen. Formol konpainiarekin antzeztzen duen *Album* obrako lana aitortzeko Antzerkia kategorian emakumezko aktore onenaren sariko hautagai izan zen lasarteoriatarra.

Jon Ibisate, marrazain errugbiko Errege Kopan

Errugbiko Errege Kopako finala jokatu zuen Sevillako La Cartuja zelaian. Silverstorm el Salvador eta Real Ciencias Enerside taldeen arteko norgehiagokan Jon Ibisate herritarra marrazain lanetan izan zen.

Dinbi Bandaren 10. urteurrena, erritmoz betea

Musikak eta dantzak ez zuten hutsik egin Dinbi Banda batukadaren urteurren berezian. Euri iragarpena zela-eta Oriarte-Landaberrira lekualdatu zituzten ikastaroa edo

kontzertua. Taldeko kide eta kide ohiak batu zituzten batupoteoa eta bazkaria ere izan ziren.



Batupoteoan ederki ibili ziren. TXINTXARRI

Aldaketak IV. Mendi Festan

256 mendizaleek Lasarte-Oria Trail Mendi Elkarteak antolatzen dituen festan parte hartu zuten. Ibilbide motza Andatzara igo zen aurten. Bitxikeriarik ere egon zen, hala nola, Iparraldetik etorritako Hegoak Mendian taldeko zazpi kidek zortzigarrena gurgil aulkian eraman zuten.

PAINTBALL DONOSTI

WWW.PAINTBALLDONOSTI.COM

Zatoz Gabonetan!

Petritza Bidea, 12 Zubieta
661 56 84 41 | info@paintballdonosti.com

Bezero agurgarria, urte amaieran erretiroa hartuko dut

Zorionez Mariak eta Ainhoek negozio honetan lanean eta martxan jarraituko dute. Gai burokratikoak direla eta, urtarrean egun batzuetan itxita egon beharko du (ahalik eta laburrena izatea espero dugu).

Nire esker beroena, honaino iristea posible egin duzuen pertsona guztiei.

mila esker!

Usitin kalea z/g · 943-370845 LASARTE-ORIA

Adinekoen Omenaldi Asteaz gozatu zuten herritarrek

Urrezko ezteien ospakizuna, bazkari herrikoia, dantzaldia, jokoak... Adinekoen Omenaldi Astea aurrera eraman zuten Lasarte-Oriako Udalak eta Biyak Bat elkarteak. Cesar Aparicio Marin eta Asun Etxeberria Elizalde (92 urtekoak biak) eseri zituzten ohorezko mahaian.

Festa gogo asebete zuten Sasoetako auzotarrek

Hilabete luzez itxaron behar izan dute Sasoetako bizilagunek auzoko festak berriro bizi ahal izateko. Zain egondako denbora, ordea, erraz ahaztu zuten asteburuan eta gogotsu heldu zioten berreskuraturako aukerari. Horretarako, Sasoeta Sasoian elkarteak kideek egitarau zabala prestatu zuten giro onean gozatzeko. Suziri hots ugari entzun ziren hiru egunetan, lehena, Lourdes Gundinek eta Oihana Izpurak irakurritako pregoiaren eta Bagri liburu dendako Antonio Barrenetxea eta Conchi Grijalba senar-emakumeen omenaldi hunkigarriaren ondoren entzun zen. Danborrada eta txikien disko festa izan ziren jardueretako bi.



Andatza plazako txupinazoa. TXINTXARRI

Hautagaitzak aurkezten hasi ziren alderdiak

Datorren urteko maiatzean izango dira udal eta foru hauteskundeak. Lasarte-Oriako alderdiak urrian hasi ziren hautagaitzak aurkezten: EH Bilduk iragarri zuen Esti Garmendia izango dela zerrendaburua, eta Elkarrekin Lasarte-Oria Podemosek ezagutarazi zuen Miguel Angel Tolosa izango dela alkategaia.

Galardiren lana saritu zuten Euskal Kazetariaren Elkarteak

Maidar Galardi F. Agirre kazetari eta ikerlari lasarteoriatarrak lau urtez egin du *Berria FM* podcast feminista. Haren lana saritu zuten

Sentitu fasearekin hasi zen 42 eguneko bidea

Sei urte luze eta gero, Lasarte-Oriak bere festa kuttunenetako batez gozatu zuten, Euskararen Maratoiak. Lasarte-Oriako Udaleko Euskara Zerbitzuak eta Ttakun Kultur Elkarteak 42 eguneko egitasmo bat antolatu zuten, Maratoia bera eta Euskaraldia lotzeko, hiru fasetan banatua: Sentitu, Prestatu eta Eta ekin!. Urriaren 22an hasi zen bide hori, esan bezala, festa giroan.



Herritarrek gogotik gozatu zuten Sentitu faseaz. TXINTXARRI

Euskal Kazetariaren Elkarteak, Kazetaritza Digitala-Narratiba Berriak kategoriako aitortza berari eginda.

Hodei Murgiondo, Euskal Herriko surflari onenen artean

Hodei Murgiondo surflari gazteak maila bikaina erakutsi zuen maiatzetik urrira, Euskadiko zein Bizkaiko zirkuituetan, 12 eta 14 urtez azpiko txapelketetan. Lehen postuetan sailkatu zen proba ugaritan.

Buruntzaldeko libilbideen Egunean, parte hartze handia

Eguraldi paregabea eta beroa lagun, herritar ugari Buruntzaldeko ibilbide ezberdinez gozatzeko hautua egin zuten. Lasarte-Oriako Elizatze plazako kontrol puntutik atera eta Andoain, Usurbil edo Urnieta izan zuten helmuga.

Joseba Sarrionandia gonbidatu zuten Irakurle Txokoko kideek

Lasarte-Oriako Irakurle Txokoko lagunek ikasturte berriari ekin zioten. Joseba Sarrionandia idazle bizkaitarra izan zen lehen gonbidatua: *Bizitza ez al da oso arriskutsua?* saiakerari buruz mintzatu ziren Antonio Mercero guneko hitzaldi aretoan. Azken kurtsuetan bezala, Uxue Alberdi idazle eta bertsolaria dinamizatzen ari da taldea.



Sarrionandia, herrian. IRAKURLE TXOKOA

Herria rally zirkuitu bilakatu zen beste behin

San Sebastian Circuit Spirit-ek antolatutako auto klasikoaren eta kirol autoen V. nazioarteko rallyak Lasarte-Oriako geldialdia egin zuten. Aurtengo 120 bat partaideek motor hotsez bete zituzten herriko kaleak. 2017an hasi zen Donostia Circuit Spirit. Ekitaldi honen nahia 1923 eta 1935 urteen artean Donostiako automobil zirkuituan izandako lasterketak gogora ekartzea da.

Aniztasunaren garrantzia irudikatu eta omendu zuten

Pirritx, Porrotx eta Marimotots pailazok Kuikui ikuskizunaren emanaldia egin zuten Manuel Lekuona Kultur Etxean. Abagunea baliatu zuten Jalgune eta Ttakun Kultur Elkarteari omenaldi txiki bat egin eta txori habi bana oparitzeko. *Pausoka-pausoka*, *Maite zaitut* eta *Txorria nintzela* abestu eta dantzatu zituzten, besteak beste.

Emanaldi hori gauzatu eta egun batzuetara aurkeztu zuen hirukoteak lan berria: *Ez gara jaitsiko*. Aipatu proiektuak Alboan gobernu kanpoko erakundearen Amazonia Gara kanpaina du oinarri eta abiapuntu. Hala, Iratiko basotik Amazoniara arteko bidaia egingo dute hiru pailazok, zuhaitzez zuhaitz eta adarrez adar.

Hemengo eta hango kultura lotu zuten Aste Kulturalean

Semblante Andaluz elkarteak Aste Kulturalean aurrera eraman zuen, Lasarte-Oriako nahiz Andaluziako kulturak lotzeko asmoz. Egin zituzten jardueretako batzuk izan ziren sevillana emanaldia, gure herriaren historiari buruzko hitzaldia eta

Aurelio Gallardo musikariaren kontzertua.

'Abrazo' lana oholtzaratu zuten Nerea Martinezek

XVIII. Dantza Zirkuituaren barruan, Nerea Martinez dantzariak sortu eta interpretatutako *Abrazo* lanaren emanaldia ikusteko aukera izan zuten Manuel Lekuona Kultur Etxera joandakoek. Besarkadaren zirrara eta zizelkatzearen ideia gorpuztu zituzten dantzariak, eraldatzeak eta igarotzeak uzten duten aztarna iradokiz.

Garaipenarekin hasi zuten denboraldia seniorrek

Ostadar Saskibaloia saileko 1. senior taldeak lehen jardunaldia jokatu eta garaipena lortu zuten: Goizper Group BKErekin neurtu zituen indarrak eta 46-30 irabazi zuten. Garaipen garrantzitsua izan zen 2022-2023 denboraldirako guztiz eraldatu den jokalariko multzoarentzat.

Irratsaio iturako kontzertua, Jalgi kafe antzokian

Antuxuna eta Patx bikoteak emanaldi berezia egin zuten Jalgi kafe antzokiko eszenatokian. Beste talde batzuetan aritutako bi musikariek teknologia berriak erabiliz eta Itoiz taldearen abestiak oinarri hartuta *Itoizezank* ikuskizuna atondu dute. Talde entzutetsuaren unibertsoan barrena bidaia, irratsaio bezala irudikatutako esperimendu bat da.

Aitor Manso pilotua, Urrakiko zein Urbasako podiumetan

Aitor Manso eta Alejandro Lopez herritarrek Urrakira igoera proban parte hartu zuten. Mansok sailkapen orokorreko bigarren postua eskuratu zuten Joseba

Iraolaren atzetik; 8. mailan, aldiz, garaikurra altza zuten.

Martutenera hurbildu zuten Ibon Fernandez Iradi herritarra

Hala jakinarazi zuen Etxerat Euskal Preso eta Iheslari Politikoen Senide eta Lagunen Elkarteak. Lannemezanen (Frantzia) egon zen urri erdialdera arte. Esklerosi anizkoitza du, eta hori dela eta, gaixo larrien zerrendako euskal presoetako bat da Fernandez.

Ikurrina bat jarri zuten Buruntza mendian

Buruntza mendira igotzen direnek metalezko egitura bat ikusiko dute orain dela gutxira arte gurutzera zegoen tokian: ikurrina bat (metalikoa hori ere), zutabe zuri baten gainean. *Naiz.eus* hedabideak zabaldu zuenez, Andoaingo "gazte abertzale talde batek" bere egina du ekimena.

Mende laurden bete zuten Lasarte-Oria Bai! krosak

Lasarte-Oria Bai! Kros Herrikoia ere kalera itzuli zen, hiru urteko etenaldiaren ostean. 25. aldiz aurrera eraman zuten kirolaren festa erraldoi hori Ostadar SKTk, sortzaileak omenduta: Imanol Bardaji, Joxean Alberdi, Roberto Rebe eta Gabi Valin. Aitortza horren ostean hasi ziren patinatzaile, lasterkari eta ipar martxalarien probak; 835 parte hartzaile izan ziren guztira. Amaitu zirenean, gaztetxoek hartu zuten helduen lekukoa.



Aurtengo omenduak. TXINTXARRI



Korrika Festa. TXINTXARRI

Agustin Valdiviak alkategai izango dela iragarri zuen

Hautagaitzak aurkezten jarraitu zuten alderdiek azaroan. Hala, PSE-EEk jakinarazi zuen gaur egungo alkate Agustin Valdivia izango dela datorren urteko bozetan zerrendaburu. Bestalde, PPK ezagutarazi zuen Alejandro Saenz ez dela aurkeztuko.

Desberdinen arteko elkarriketa espazioen aldarria egin zuten

Motibazio politikoko indarkeria kasuak gogoan izan zituzten azaroaren 10ean, Memoriaren Egunean. Askatasuna parkean dagoen *Biharraren oroipena* eskulturaren alboan ekitaldi xume bat egin zuten udal ordezkari eta herritarrek.

Ostrukak arrainontzian

Formol Laborategiak *Album* ikuskizuna ekarri zuen Manuel Lekuona Kultur Etxera. Urtebetez antzokiz antzoki eraman dute obra Intza Alkain eta Mikel Ibarguren aktoreek, eta ia bete zen auditorioko eszenarioan antzeztu zuten. Eszenografia simple eta xumean, *millennial* gazteen iruditeria bat islatu zuten.

Album herrira ekarri bezperatan, Intza Alkain herritarra elkarriketatu genuen. Antzezlanari buruzko hainbat zertzelada emateaz gain, Lasarte-Orian emanaldia egiteagatik oso pozik zegoela azpimarratu zuen.



Intza Alkain herritarra. TXINTXARRI

Elkarrekin eta elkarrengandik ezagutu zuten Lasarte-Oria

Lasarte-Oriako bazterrak, historia eta hirigintza eredu sakonago ezagutzeko aukera izan zuten herritarrek, Impact Hub Donostiak antolatutako ibilaldian. Euskotren geltokiaren atarian elkartu, eta handik herriko hainbat txokotara joan ziren. Jane Jacobsen *Muerte y vida de las ciudades* liburua eskuetan, ibilbidea kazetari estatubatuarren betaurrekoak jantzita egitera gonbidatu zituen Victor Aspe arkitektoak irteera puntuan bildu ziren 40 bat lagunak.

Bideoklip bat kaleratuta ospatu zuten 16. urteurrena

Hamasei urte igaro dira Lasarte-Orian Xumela korua sortu zenetik. Orduz geroztik ez da festarik igaro herrian beraien abestirik gabe. 45-50 lagun inguru elkartzen dira astelehenero Landaberri Oriarte institutuan 19:30ean. Ondo pasatzeko, bizitzari alaitasun puntu bat emateko eta euskal kantu tradizionalak abesteko asmoarekin. Urtean zehar antolatzen dituzten egitasmoetan are handiagoa izan ohi da taldea, 70 bat partaide izateraino.

Ehun herritar baino gehiago Behobia-Donostia lasterketan

Lasarteoriatar ugarik parte hartu zuten 57. Behobia-Donostia lasterketan; ehun baino gehiago helmugaratu ziren. Herritar azkarrenak Jon Presa (01.08.53) eta Ana Bienzobas izan ziren (01.41.12), eta patinatzaileen kategorian, Ximon Villalobos (35.29).

Dominak irabazi zituzten LOKEko judokek

Lasarte-Oria Kirol Elkarteko (LOKE) judokak txapelketaz

txapelketa ibili ziren azaroan. Nabarmentzekoak izan ziren Asier Sagastik Euskadiko txapelketan irabazitako zilarra eta Haritz Urdangarinek Gipuzkoa mailan jantzitako brontzea.

Radu Ratoi eta Antonio Serrano bikain aritu ziren

Zero Sette orkestrak antolatutako XIX. Akordeoi jaialdian, Radu Ratoi akordeoi jotzaile moldaviar-errumaniarrak eta Antonio Serrano harmonika jotzaileak euren trebezia erakutsi zieten bertaratutakoei. Ohi bezala, haien saioak amaitu eta gero aitortza jaso zuten antolatzailer eta udal ordezkarien partetik.



Ratoi eta Serrano. TXINTXARRI

Aurtengo literatur lan onenen egileek sariak jaso zituzten

Manuel Lekuona Kultur Etxeko hitzaldi aretoan egindako ekitaldian jaso zituzten euren sariak aurtengo irabazleek. Haur eta gazteen lehiaketan lan kopurua hazi egin dela nabarmendu zuen Kultura eta Hezkuntza batzordeburu Maite Iglesiasek: 132. Helduen sariketan, aldiz, 90 poema eta 126 mikrokontakizun aurkeztu zituzten.

Odolkiak ordainetan jaso zituzten Extremadura Etxean

VI. Txerria Hiltzearen jaia ospatu zuten Ama Guadalupe



Herritarrek dantzan jarri zituzten Euskaraldiaren aurkezpenean. TXINTXARRI

Prestatu ostean, ekin

Sentitu fasean euskaraz hitz egiteko motibazio kolpea jaso ostean, Prestatu hasi zen. Izenak ongi dioen moduan, azaroaren 18an hasi zen Euskaraldirako prestatu ziren herritarrek, Eta ekin! faserako, Bea Egizabal eta Intza Alkain guruzaleen laguntzarekin.

Extremadura Etxean. Berrobiko hiltegia animalia hil ondoren, Sasoetako egoitzan zatikatu eta lortutakoarekin txorizoak, odolkiak eta plater goxoetarako osagaiak lortu zituzten.

Santa Zezilia omendu zuten

Musikariaren zaindarien eguna ospatu zuen Alboka Abesbatzak, eta San Pedro elizako meza girotu. Lau doinu eskaini zizkieten elizan zeuden sinestunei, korutik: Claude Goudimel eta Joanes Haranbururen *Salmoa, Hanaq pachap kusikuynin* 1631 urteko abesti perutarra, Ola Gjeilo-ren *Ecce Novum* eta Felipe Gorritiren *Agur Jesusen Ama*.

Betiko amaitzea eskatu zuten

Aurten ere agertu dira lasarteoriatarrek emakumeen aurkako indarkeriaren kontra.

Azaroaren 25aren harira, askotariko ekimenetan parte hartu zuten, beste behin, indarkeria matxista gaitzetsi eta horrekin amaitu behar dela eskatzeko. Horren harira, kontzentrazio eta manifestazio bana aurrera eraman zituzten udalak eta Asunak talde feministak, hurrenez hurren.



Asunak-en elkarretaratzea. TXINTXARRI



LUIS CAR autobusak

2023 urte zoriontsua opa dizuegu!

- Espainiako eta nazioarteko garraio zerbitzuak
- Enpresentzako, ikastetxeentzako... zerbitzuak
- 15 plazako mikrobusak
- 55 plazako autobusak
- Elbarrientzat behar bezala prestatutako autobusak

Uzturre plaza 1, LASARTE-ORIA • Tel./Faxa: 943-36 63 16 • Mugikorra: 629 461 897 • luiscarbus62@hotmail.com

'Azkenak!' fanzinea argitaratu zuen presoan aldeko batzordeak Azken Ostirala dinamikari buelta bat eman, eta hilabetero landutako zenbait testurekin *Azkenak!* fanzinea kaleratu zuen Lasarte-Oriako Presoen Aldeko Batzordeak. Herriko zenbait sortzailek irudiztatu zituzten agerkariko hitzak. Aldizkaria argitaratu eta gero, enkante kolektibo bat aurrera eraman zuen eragile horrek.

Onkologikoak okerrera egin duela salatzen batu dira

Onkologikoa Bizirik batzordeko bi kide elkarrizketatu genituen abendu hasieran, Sandra Barkaiztegi (Lasarte-Oria, 1972) eta Elena Ginea (Lasarte-Oria, 1967). Kontatu zuten zentro horren zerbitzuak okerrera egin zuela salatzen eta lehengoratzeko eskatzeko bat egin dutela zenbait paziente eta erabiltzailek. Urtebeteko aldearekin pairatu



Ginea eta Barkaiztegi. TXINTXARRI

zuten bularreko minbizia, 2020an eta 2021ean, hurrenez hurren; baina artzateari dagokionean, bien bizipena ez zen bera izan. Egoerak okerrera egiten jarraitzen duela ikusteak, gainera, haserretu egiten ditu.

Fortunata Hernandez herritarrek 100 urte bete zituen

Fortunata Fortu Hernandez Arroyok 100 urte bete zituen hilaren 15ean. Egun berezi horretan, senide eta lagun guztien zorion agur mezuak jaso zituen, baita Lasarte-Oriako udal ordezkariena ere. "Sasoiko" dagoela eta gaztetako borrokalari eta aldarrikatzaile grina mantentzen duela agerian utzi zuen berarekin hitz egitean.

Buenetxeak eta Araetak irabazi zuten pintxo bidea

Aterpea elkarteak antolatutako VIII. Pintxo Bidearen sariak banatu zituzten: Buenetxea

Pertsona garrantzitsuz bete zuten eszenatokia

Euskararen Eguna izateaz gain, Aniztasun Funtzionalaren Eguna ere izan zen hilaren 3a. Data ezin aproposago hori aukeratu zuen Jalgune Elkarrekin urteroko jaialdia egiteko. Very Important People (VIP) –persona oso garrantzitsuak– direla erakutsi zuten, eta ondoan izan zituzten halakoak diren 10. Maratoialdiko zortzikoteko kideak, Semblante Rociero edo Bea Egizabal.



Jalguneko gazte eta begiraleak, ikus-entzuleen txaloak jasotzen. TXINTXARRI

tabernak sari profesionala irabazi du, eta Araeta jatetxeak, herrikoia. Antolatzaileek jakinarazi zuten hiru egunetan 1.050 bat jaki saldu zituztela, eta horrek 6.000 euroko eragin ekonomikoa izan duela Lasarte-Orian. Horrelako ekimenen beharra aldarrikatu zuten partaideek.

Gazte Talent lehiaketa irabazi zuen Maialen Aristegik

Maialen Aristegi kantautore lasarteoriatarrek Gazte Talent lehiaketako sarietako bat irabazi zuen. Egitasmo horrek lan diskografikorik edo ekoiztetxe batekin kontraturik ez duten artisten lana aitortzen du. Gasteizko Jimmy Jazz aretoan jo zuten sei finalistek, eta esan bezala, herritarra izan da garaileetako bat, V.E.L.O. bikotea eta Iñaki Armentiarren Udda egitasmoarekin batera.

Gazteak eta euskara hizpide

Buruntzaldeako Borroka Astea aurrera eraman zuen Ernai antolakundeak, eta horren barruan antolatutako lehen hitzordua Lasarte-Orian egin zuen, *Benetan euskaraz bizi gaitzeko?* hitzaldia, Xirimiri elkartean. Bi gonbidatu ekarri zituzten gaiaz hitz egitera, Oier Errementeria eta Maialen Iñarra. Gazte Euskaltzale Sareko kidea da lehena, eta Soziolinguistika Klusterreko kidea bigarrena, eta bakoitzak bere arlotik hitz egin zuten gaiaz.

Entzuteko moduko liburua

Nere musikak izeneko liburu bat argitaratu zuen hilabete hasieran Jokin Goenaga Miner musikari lasarteoriatarrek; azken 20-22 urteetan sortutako ia guztia jaso du lan horretan. Akordeoia jotzen du batez ere, baina beste

instrumentu batzuentzat ere idatzi du, hala nola, pianoa edo teklatu elektronikoa. Abesti bakoitzeko



Jokin Goenaga Miner. TXINTXARRI

QR kode bat sortu du, sakelako telefonoarekin eskaneatu eta entzungailuekin gozatzeko.

Basaundi bailarako birgaitze integralari bultzada, Europatik

Europar Batasunaren Next Generation funtsak 4.388.195 euro bideratuko ditu Basaundiren birgaitze integralera. Eusko Jaurlaritzak emandako 2.800.000 euro eta udalak jarriko dituen 2.390.000 euroko aurrekontuak osatuko ditu ekarpen horrek. Agustin Valdivia alkateak sinatu zuen akordioa, Madrilen.

Ventanas Alcar-en erakusleihoa izan zen dotoreena

Aterpea elkarteak antolatutako erakusleihoen lehiaketako protagonistak nagusia Ventanas Alcar izan zen, sari profesionala eta herritarrek ematen dutena irabazi zituelako. Establezimendu horren jabe Luis Mari Carballo adierazi zuenez, "lan asko" egin zuten, irailean hasi zirelako apaingarriak prestatzen. Eskerrak eman zizkien haien alde bozka eman zuten guztiei.

Iparragirrek eta Urruzolak Txileren aurka jokatu zuten

Euskal Selektzioak Txileren aurka jokatu zuen Gasteizko Mendizorrotxa zelaian eta 3-0 gailendu zen. Bi herritarrek parte hartu zuten neurketan eta ederki egin zuten lan. Real Sociedad taldeko Iraia Iparragirre herritarra hasierako hamaikakoan izan zen eta bigarren zatian aldatu zuten. Osasunako jokalaria den Irati Urruzola, aldiz, bigarren zatian atera zen zelaira.



Hasierako hamaikakoa. EUSKAL SELEKTZIOA

Gorka Marcos hasieratik jokatu zuen Celtaren aurka

Gernika SDn jokatzen ari da Gorka Marcos lasarteoriatarra. Errege Kopan sendo hasi zen talde bizkaitarra, Bigarren Mailako arerio bat kaleratuta, Leganes. Horren ostean, Lehen Mailan dagoen Celtarekin neurtu zituzten indarrak Imanol Larrazabalen mutilek, eta 0-3 galdu zuten. Hasierako hamaikakoan izan zen Marcos.

Maratoialdia bukatu zen

Hilabete hasieran amaitu zen Euskararen 10. Maratoialdia, Euskaraldiarekin batera. 42 eguneko bide oparoa errepasatu zuten zortzikoteko kideak, kultur etxeko auditoriora bertaratu ziren lasarteoriatarrekin batera. Kantu eta dantza egin ostean (*Ahoa bizi belarriak prest, Hamar atzamar...*) Tkunenea elkartera joan ziren, mokadutxo bat jaterra.

Lasarte-Oriaren aldaketa demografikoa, zenbakitan

EITB taldeak eta Tokikom tokiko hedabideen bateraguneak aurrera eramandako Saretzen egitasmoarekin bat egin du TXINTXARRI aldizkariak. Eustatek eta Nastatek biztanleriari buruzko 2001 eta 2021 urteen arteko datuak argitaratu zituzten, horiek herriz herri lantzeko asmoz. Horretan ari gara.

Proiektuaren aurkezpen gisa landutako artikuluan adierazi genuen, besteak beste, hazi egin dela lasarteoriatarren kopurua, 17.099 izatetik 19.294 izatera pasatu direlako, hau da, 2.195 (%12,84) herritar gehitu ditu udalerriak.

Osakidetza defendatzeko eskatu zuten osasun langileek

Lasarte-Oriako Osasun Zentroko langileek elkarretaratze bat egin zuten anbulategi atarian, *Osakidetza defenda dezagun* lelopean. Euskal Herri osora zabaldu zen SATSE, ELA, LAB, SME, CCOO eta UGT sindikatuek deitutako ekintza. Hori baino lehen, ospitaleetako beharginek ere protesta egin zuten.

Belartietara, Sagasti eta De la Serna saritu zituzten

Lasarte-Oriako Udalak VII. Kirol Gala aurrera eraman zuen Manuel Lekuona Kultur Etxean. Herritarrek proposatutako onenen saria jaso zuten Aiora Belartietara eta Asier Sagasti arraunlariak eta Asier Sagasti judokak. Eulogio de la Sernak, berriz, kirol ibilbidearen oroigarria eskuratu zuen.

Hiru pozarren jaso zituzten aitortzak, eta hunkituta hitz egin zuten ikus-entzuleen aurrean. Ondoren, udal ordezkariak talde argazkia egin zuten irabazleekin, eta ostean, nahi zuenak izan zuten gauza bera egiteko aukera, kultur etxeko harreran jarritako photocallean.



Aurtengo hiru sarituak. TXEMA VALLES

Tradizioa josten, oraina jantzi ahal izateko

Udalak eta Ttakun Kultur Elkartek antolatutako jantzi tradizionalen ikastaroan parte hartu duten ikasleek arropa dotoreak josi dituzte, Ione Artola irakaslearen jarraibideei jarraituta, Emakumeen Zentroan. Azken egunean erakusketatxo bat egin zuten.



Ikastaroko jantziatxo bat. TXINTXARRI

Izarrek are distira gehiago egin dezaten lan egin zuten

Moriarti Produkzioak-en *Balenciaga* telesailaren ekoizpen eta grabaketa lanetan parte hartu zuten zenbait herritarrek: Ione Artola, jostun lanetan; Jokin Ayerregaray, jantzitegian; eta Ane Arteaga, errejidore gisa. Hiru horien lekukotzak jaso genituen. Haiez gain, Ander Armendariz arotza eta David Heras jardun dira, azken hori efektu bereziekin. Seigarren bat ere jardutekoa zen, Ioritz Apaolaza, baina motor istripuz hil zen martxoan. Gogoan izan zuten elkarrizketatuek.

Pantaila handian ikusitakoaz jardun zen, lehen pertsonan

Okendo Zinema Taldeak *Mi país imaginario* filma proiektatu zuen Manuel Lekuona Kultur Etxeko auditorioan. Ez zen proiektio huts bat izan, ordea; izan ere, filmaren emanaldia amaitu ostean, bertan ikusitakoa lehen pertsonara ekarri zuen Kevin Sohail txiletarrak, oholtzara igo eta bere testigantzen berri emanez. Ez da Txileko hiriburuan, Santiagon bizi, Concepcion hiriko Coronel hirian baizik, eta herrialdean gertatutako eztanda soziala nola bizitu zuen kontatu zien aretoan bildutakoei. Sorpresatxo batekin amaitu zuen gainera bere parte hartzea. Gitarra eskuetan, Victor Jara musikari txiletar eta entzutetsuaren *El arado* abestia kantatu zuen, tarteka euskaraz ere bai.

Ikasketak eta dantza uztartzen dituen herritar baten lekukotza

Dantza klasikoa edo balletaren harra txikitari sartu zitzaion Nahikari Zaldúa Vega (Lasarte-Oria, 2005) gazteari. 15 urterekin, bere ametsari jarraiki, Burgosko Ana Laguna dantza eskola profesionaleko proba egin eta onartua izan zen. Geroztik Burgosen bizi da eta ikasketak eta dantza uztartzen ditu. Uztailean Valencia Endanza ikastaroan saria jaso zuen: Espainiako Dantza Konpainia Nazionalen egonaldia. Haren lekukotza jaso genuen, eta hona egindako hausnarketetako bat: "Triste da Goi Mailako ikasketak egiteko eskolarik hurbilena Burgoskoa izatea".



Nahikari Zaldúa Vega. M. VEGA

Plaza bete azoka

Gogotik ospatu zuten San Tomas azoka herritarrek, Okendo plazan. Txistorra, txokolate edo gazta (edo hiru osagaiekin, zergatik ez) taloak jan, sagardo freskoa edan eta arratsalde pasa ederra egin zuten. Xumela koruak, bingoa egin zuten gazteek eta Plaza Dantzako lagunak girotu zuten ekitaldia.

Talo eta gaztain usain gozoak lasarteoriatar ugari liluratu bazituen ere (ikusitako ez zen egin behar zer-nolako ilara zegoen tiketak erosteko), Martina txerriak eta haren kumeek sortu zuten ikusmin handiena. Gazte eta heldu, asko izan ziren animalia ikustera pasa zirenak.

Haurren maitasuna jaso zuten Mari Domingi, Olentzero, Xixuko eta Porrotzek

Hilaren 24an etorri ziren herrira Mari Domingi eta Olentzero, lasarteoriatarrei zoriontasuna eta opariak banatzera. Ohi bezala, lagun izan zituzten Xixuko ahatea eta Porrotx pailazoa. Goizean zehar haurren eskutitzak jaso zituzten, eta kalejiran atera arratsaldean, Okendo plazan



Mari Domingi eta Olentzero, hilaren 24ko ekitaldi nagusian. TXINTXARRI

ekitaldi nagusia egin aurretik. Zenbait elkartek abesten jarduteko aprobetxatu zuten eguna: Alboka Abesbatza, Erketz dantza taldea eta Zabaleta Auzolan elkarteak. Horrez gain, kantu jira aurrera eramane zuten herriko ikastetxeetako ikasleek.

Erretiroa hartzea erabaki dute Maite Arroyok eta Maite Erkiziak

Lasarte-Orian erreferente izan diren bi pertsonak, Maite Arroyok eta Maite Erkiziak, erretiroa hartzea erabaki dutela

iragarri dute hilabete honetan. Lehenak 39 urte pasa ditu Maite estetika zentroan lanean, eta bigarrenak, 44 urte, Blas de Lezo kaleko 5. zenbakian, 2. solairuan aurrean eta azpiko lokalean gero, Maite Erkizia ile apaindegian.

Biek ala biek esker hitzak izan dituzte urte hauetan guztietan bezero izan dituzten pertsonen. Erretiroa hartu izanagatik, esku onetan utzi dituzte negozioak, haien lankide izan direnek hartuko baitute beraien lekukoak.

Berdintasunaren bitartez ekiditen dugu desberdintasuna.

Desberdintasun gutxien dituen Europako lurraldeen artean jarraitu nahi dugu, horregatik, Gipuzkoako Foru Aldundia babestutako lanaren eta ekonomia sozialaren eredu propioa lantzen ari da, Etorikizuna Eraikiz ekimenaren bidez.

Gizarte politikak kudeatzeko modu berezia dugu. Eredu propio bat, gizarte eragileekin eta irabazi asmorik gabeko erakundeekin sinatutako hitzarmen eta akordio bidez, gizarte bazterkeria egoeran edo arriskuan dauden pertsonen laneratzeko ibilbide pertsonalizatuak eskaintzeko lan egiten dugu.

Etorikizuna Orain.

etorkizuneraikiz.eus





Patxi Larrañaga
Ana Iparraguirre
Naroa

Kale Nagusia 39 Lasarte-Oria Tel. 943-37 26 68

Urte berri on!

Urte berri on! 

Gabonetako eskaintzak ditugu! ZATOZ!

HAURRENTZAKO LANPARAK DIBERTIGARRIAK



600 85 75 86 
www.electricidadarregui.com
tienda.electricidadarregui.com
(on-line denda)



Kale Nagusia 39 - LASARTE-ORIA - Tel. 943-36 10 80 - Tel/Faxa: 943-37 25 21



EGIN ZAITEZ BAZKIDE! 54€ urtean


Elikatu hizkuntza eta kultura!

URTARRILAREN 15a baino lehen bazkide egiten bazara urteurreneko poltsa edo botila opari eta otar baten zozketan sartuko zara!



Izen-abizenak: _____
 NAN: _____ Jaiotze data: _____
 Helbidea: _____ Herria: _____
 Telefonoak: _____
 e-maila: _____
 Kontu korrontea (IBAN): _____

Data eta Sinadura



Bidali postaz edo utzi bulegoan:
Geltoki kalea 4, beheka 20160 LASARTE-ORIA

On-line egiteko:
www.txintxarri.eus/bazkidetu



Ttakun Kultur Elkartek urtean zehar antolatzen dituen ekitaldien eta zozketen berri jaso nahi dut emailaz

Ttakun kultur elkartearen izenean emandako datuak bazkideen kudeaketarako erabiliko direla adierazten dizugu. Kudeaketa administratiboa, bazkideen onuren aplikazioa, zozketen partehartzea eta harremanetarako informazioa. Emandako datuak bazkideetarako irauten duen bitartean edota betebeharrak legalak irauten duen bitartean gordeko dira. Datu hauek ez dira hirugarren pertsonen eskainiko betebeharrak legalak dagoen kasuetan ezik. Honetaz gain, edozein momentutan egikaritu daiteke sarbide, zuzenketa, ezeztatze, oposizio, mugatze eta eramangarritasun eskubidea. TTAKUN KULTUR ELKARTERA idatzi bat zuzenduz NAN agiria aurkeztuz, edo posta elektronikoki bat bidaliz datubasesa@ttakun.eus helbidera.

Informazioa eta bazkideetarako: ttakun@ttakun.eus • Geltoki kalea 4, Lasarte-Oria • 943-37 14 48